

**Fiskalizazio Txostena**

**Informe de Fiscalización**

**Bilbao Exhibition Centre, S.A.**

**2008-2011**





## AURKIBIDEA/ÍNDICE

LABURDURAK .....	5
I. SARRERA .....	7
II. IRITZIA .....	9
II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia .....	9
II.2 2011.12.31n Urteko kontuei buruzko iritzia .....	10
III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK .....	11
III.1 Kontratazioa .....	11
III.2 Bestelakoak .....	11
IV. 2008-2011-KO JARDUERARI BURUZKO ANALISIA .....	12
IV.1 Azoka-jarduera .....	12
IV.2 Kongresu-jarduera .....	15
IV.3 Bizkaia Arena pabiloian egindako ekitaldiak .....	16
IV.4 Bestelako sarrerak .....	17
IV.5 BECen jarduerak 2008-2011 aldian izan duen bilakaerari buruzko ondorioak .....	18
V. 2008-2011-KO FINANTZA ANALISIA .....	20
V.1 Bilakaera finantzarioa .....	20
V.2 Azterketa finantzarioaren ondorioak .....	23
VI. 2011-KO EKITALDIAREN URTEKO KONTUAK .....	25
ALEGAZIOAK .....	31
ABREVIATURAS .....	45
I. INTRODUCCIÓN .....	47
II. OPINIÓN .....	49
II.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad .....	49
II.2 Opinión sobre las Cuentas Anuales a 31.12.2011 .....	50
III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN .....	51
III.1 Contratación .....	51
III.2 Otros .....	51
IV. ANÁLISIS DE LA ACTIVIDAD 2008-2011 .....	52
IV.1 Actividad ferial .....	53
IV.2 Actividad congresual .....	55
IV.3 Eventos celebrados en el pabellón Bizkaia Arena .....	56
IV.4 Otros Ingresos .....	57
IV.5 Conclusiones sobre la evolución de la actividad de BEC en el periodo 2008-2011 .....	58



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia  
  
Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

V.	ANÁLISIS FINANCIERO 2008-2011 .....	60
V.1	Evolución financiera .....	60
V.2	Conclusiones del análisis financiero .....	63
VI.	CUENTAS ANUALES DEL EJERCICIO 2011 .....	66
	ANEXOS.....	71
A.1	Normativa aplicable .....	71
A.2	Inmovilizado .....	72
A.3	Patrimonio Neto .....	73
A.4	Endeudamiento .....	75
A.5	Gastos de personal .....	76
A.6	Inversiones financieras a corto plazo y tesorería.....	77
A.7	Calendario de ferias en el periodo.....	78
A.8	Ocupación ferial de BEC en el periodo .....	79
A.9	Cumplimiento de objetivos por actividad.....	79
A.10	Margen de la actividad ferial de BEC en el periodo.....	81
A.11	Ingresos obtenidos por las ferias organizadas por BEC.....	82
A.12	Contratación .....	83
A.13	Contratos menores .....	84
	ALEGACIONES .....	85

Vitoria-Gasteiz, 2013ko otsailaren 14a  
Vitoria-Gasteiz, a 14 de febrero de 2013



## LABURDURAK

EIEM:	Ekonomia Intereseko Enpresa Multzoak.
BEC:	Bilbao Exhibition Centre.
IEB:	Inbertsioen Europako Bankua
BIEMH:	Bienal de Máquina Herramienta.
BOE:	Estatuko Aldizkari Ofiziala.
EHAA:	Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria
EAE:	Euskal Autonomia Erkidegoa
EB:	Espainiako Konstituzioa.
BGP:	Bizkaiko Garraio Partzuergoa.
XG:	Xedapen Gehigarria
BFA	Bizkaiko Foru Aldundia
DOUE	Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala
EBITDA:	“Earnings Before Interest, Taxes, Depreciation and Amortization”. Irabaziak, Interes, Zerga, Baliogalera eta Amortizazio aurretik.
EEEF:	Etorkizuneko Energiaren Europako Foroa.
EHA/733/2010	Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren Agindua, martxoaren 25ekoa, inguruabar jakinetan jarduten duten enpresa publikoen kontularitzako alderdiak onartzen dituena.
LE	1/1995 Legegintzako Errege Dekretua, Langileen Estatutuari buruzkoa.
ABLE:	Aldi Baterako Laneko Enpresa.
EEE:	Energiaren Euskal Erakundea
BNE	Bilboko Nazioarteko Erakustazoka.
SAL:	1564/1989 Legegintzako Errege Dekretua, abenduaren 22koa, Sozietate Anonimoen Legeari buruzko Testu Bateratua onesten duena.
SPKL:	30/2007 Legea, urriaren 30ekoa, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzkoa.
KSL:	1/2010 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 2koa, Kapital Sozietateen Legeari buruzko Testu Bateratua onesten duena.
15/2010 Legea	15/2010 Legea, uztailaren 5ekoa, abenduaren 29ko 3/2004 legea aldarazten duena, merkataritzako eragiketen berankortasunaren aurka borroka egiteko neurriak ezartzen dituena.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

- 35/2010 Legea 35/2010 Legea, irailaren 17koa, lan merkatua zaharberritzeko presako neurriei buruzkoa.
- 8/2010 LED 8/2010 Legegintzako Errege Dekretua, maiatzaren 20koa, defizit publikoa murrizteko aparteko neurriak hartzen dituena.
- 2/2010 FA 2/2010 Foru Araua, ekainaren 30ekoa, 3/2009 Foru Arauaren osagarria, abenduaren 23koa, Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2010 urterako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa, ordainsari gaietan.
- 6/2006 FA 6/2006 Foru Araua, abenduaren 29koa, Bizkaiko Lurralde Historikoan Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga arautzen duena.
- GHP: Gabonetako Haur Parkea.
- LED: Legegintzako Errege Dekretua
- APKLEO: 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onartzeko dena.
- APKLTB: 2/2000 Legegintzazko Errege Dekretua, ekainaren 16koa, Administrazio Publikoetako Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratua onesten duena.
- AG Auzitegi Gorena
- EHJAN Euskal Herriko Justizia Auzitegi Gorena
- TVCP/HKEE Herri Kontuen Euskal Epaitegia
- EHU Euskal Herriko Unibertsitatea



## I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak (HKEE) otsailaren 5eko 1/1988 Legean xedatutakoari jarraiki, Lan Programan Bilbao Exhibition Centre, SAK (aurrerantzean BEC) 2008-2011 aldian garatutako jardueraren fiskalizazioa barne hartu du.

BEC 2001eko martxoaren 6an eratu zen honako hauen artean: EAE (% 33,33), BFA (% 33,33), Barakaldoko Udala (% 11,11), Bilboko Merkataritza, Industria eta Nabigazio Ganbera (% 11,11) eta Bilboko Nazioarteko Erakustazokaren artean (BNE); BNEren desagertzeak eta 2005ean Bilboko Udala akziodun bihurtzeak, kapitalaren etengabeko zabalkuntza eta murrizketekin batera, akziodunen kapitala eta partaidetzaren ehunekoak 2011ko abenduaren 31n ondotik zehaztutako osaerarekin utzi dute:

ERAKUNDEA	Euroak milakotan	
	ZENBATEKOA	%
Eusko Jurlarritza	41.283	% 46,52
BFA	41.283	% 46,52
Barakaldoko Udala	2.696	% 3,04
Bilboko Udala	2.012	% 2,27
Bilboko Merkataritza, Industria Eta Nabigazio Ganbera	1.459	% 1,65

Xede soziala merkataritza lehiaketak antolatu eta kudeatzea da, jarduera ekonomikoaren adar ezberdinen eta aisialdi eta kulturarekin lotutako beste batzuen merkataritzako sustapen modura.

BECek erakustazokaren instalazioak 2004ko apirilean inauguratu zituen eta Barakaldon du helbide soziala; 6 pabiloitan banatutako 150.000 m<sup>2</sup>-ko erakusketa azalera du eta bertan egiten dira azokak; horietako bat "Bizkaia Arena" da, erabilera anitzekoa, eite ugari hartzeko aukera ematen baitu eta oso bestelakoak diren ekitaldietarako konfiguratu baitaiteke; ekitaldi mota oro zein kontzertutarako diseinatutako akustika du eta 26.000 pertsonarentzako gehiengo barnera. Berebat, 18.000 m<sup>2</sup>-ko Kongresuetarako Gunea du, barnera eta eite ezberdineko 10 aretoekin, 3 mailatan banatuak, kongresu, sinposio eta bilera mota oro barne hartzeko gai. Orobat, BECek atari eta jatetxeetarako beste 41.500 m<sup>2</sup> ditu, 4.160 m<sup>2</sup> bulego eta 4.000 aparkaleku.

## Fiskalizazioaren helburua

Lanaren mamia honako hau izan da:

- 2008-2011 aldian zehar langile kontratazioan eta ondasun eta zerbitzuetan ezargarria den araudia bete den aztertzea.
- Sozietatearen 2011ko Urteko Kontuak ezargarri zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datozela egiaztatzea.

Kanpoko auditoreek egindako 2011ko ekitaldiko urteko kontuen auditoria txostena eskuratu dugu, txosten horren euskarri diren lan-paperak aztertu eta beharrezko irizitako auditoria proba osagarriak gauzatu ditugu.



- 2008-2011 aldian garatutako jarduera ekonomikoaren analisia.  
Horretarako, Sozietatearen ondorioen kontabilitate analitikoa berrikusi dugu; baita Sozietatearen Zuzendaritzak prestatutako urteko oroitidazki eta bestelako txostenak ere.
- Aipatutako aldian finantza egoeraren analisia.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren eraginkortasun eta zuhertasunari buruzko azterlanik besarkatzen. Nolanahi ere, azaleratutako hutsak “Barne kontrolerako sistemei eta kudeaketa prozedurei buruzko irizpenak” idazpuruan xehetasunez jasoko ditugu.





## II. IRITZIA

### II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

#### LANGILEEN KONTRATAZIOA

1.- Lanpostu bat amortizatu izanaren ondorioz abiarazitako baja espediente batean BECek LEren 52 c) artikuluekin loturik, 6/2006 FAre 9. artikulua zehazten duen mugaren gainetik gehiegi 70.131 euroren kalte-ordaina ordaindu zuen; gehiegizko kopuru horri ez zaio, baina, NUIZaren konturako atxikipenik egin, zerga horretatik guztiz salbuetsia dagoela irizteagatik.

#### ADMINISTRAZIOKO KONTRATAZIOA

2.- Aztertu ditugun sei espedientetan (3, 4, 5, 6, 11 eta 15 zk.), epe horretan 14,4 milioi euroren exekuzioa izan dutenak, lizitazio iragarkia EHAAAn soilik eman zen argitara; ordea, kopurua aintzat hartuta DOUEn eta BOEn argitaratu behar zatekeen, APKLTBren 78.1 artikuluekin loturik 2.1 artikulua urratuz (ikus A.12).

3.- Altzari eta osagarrien alokairu zerbitzua esleitzeko eta horiek garraiatu, kolokatu eta jasotzeko lehiaketa 2010eko apirilean egin zen (9 zk. espediente) eta esleipendunak uko egin zion esleipenari 2011ko martxoaren 21ean. BECek 2011ko apirilean (10 zk. espediente) kontratua berriz esleitu zuen eta zuzenean 2010ean egindako lehiaketan 2. tokian geratu zen lehiatzaileari eman zion. Esleipen honek, 2011n 132.117 euroren exekuzioa izan zuena, urratu egiten ditu publikotasun eta lehia printzipioak, SPKLren 1. artikulua agintzen duena (ikus A.12).

4.- 2010eko irailaren 20ko Administrazio Kontseiluaren erabaki bitartez, BECek Club Deportivo Basket Bilbao Berri SAD sozietateari bi maileria teleskopiko aulki eta guzti erosi zizkion, 773.125 euroren zenbatekoan (BEZ sartu gabe); sozietate honek prezio berean erosi zituen Bizkaia Arena pabiloian 2009-2010 denboraldian jokatu ziren saskibaloiko partidetan erabiltzeko. Erosketa hau zuzenean egin da, publikotasun eta lehia printzipioak urratuz.

5.- BECek 2008-2011 aldian hainbat gastu egin ditu, guztira 2,5 milioi euroren zenbatekoan, erosketa txiki modura izapidetu dituenak; ordea, zenbatekoa aintzat hartuta prozedura ireki bitartez edo lehia bermatuko zuen prozedura baliatuta kontratatu beharko zituzkeen; horrek guztiak SPKLren 1. artikulua eta APKLTBren 6. XGak bereizitako publikotasun eta lehia printzipioak urratzen ditu (ikus A.13).

Epaitegi honen iritzira, BECek, 1etik 5era bitarteko idatz-zatietan azaldutako ez-betetzeak alde batera, zuzentasunez bete du 2008-2011 aldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.



## II.2 2011.12.31-N URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

Epaitegi honen iritzira, honekin baterako 2011ko ekitaldiaren Urteko Kontuek alderdi esanguratsu guztietan BECen 2011ko abenduaren 31n ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena erakusten dute; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion bere eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, bertan jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.

Urteko kontuei buruzko iritzian eraginik izan gabe, komenigarri iritzi diogu, egoki interpretatu ahal izateko, ondotik zehaztutako informazioa aintzat hartzeari:

Sozietatea, 2011ko abenduaren 31n, KSLren 363. artikulua jasotako egoeran zegoen, ondare garbia kapital sozialaren erdia baino kopuru txikiagora murriztu baitzen. 2012ko apirilaren 10eko Akziodunen Batzar Nagusiak 24 milioi euroren kapital zabalkuntza eta 44,4 milioi euroren kapital murrizketa onartu du horretarako zegoen legezko epean; horren ondorioz, Sozietatea 2012an 2011ko abenduaren 31ko ondare egoerara bueltatu da, indarreko legeriari jarraiki.

Bestalde, jarduerari eutsi ahal izatea akziodunen finantza- eta ondare-sostenguaren baitakoa izango da, eragiketei eusteko eta hartutako konpromisoei aurre egin ahal izateko.



### **III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK**

Atal honetan ekonomia-finantza jarduera arautzen duten printzipioak gehiegi eragiten ez dituzten akatsak ez ezik, kudeaketa hobetzeko azpimarratu nahi diren prozedurazko alderdiak ere azaleratu dira.

#### **III.1 KONTRATAZIOA**

2008-2011 aldian indarrean zeuden 16 kontratu nagusiak aztertu ondoren, honako alderdi hauek azaleratu zaizkigu (ikus A.12):

##### **Kontratatziorako barneko aginpideak**

- BECen kontratatziorako barne aginpideek, erregulazio harmonizatuari lotu gabeko kontratuak arautzen dituztenak, hiru eskaintza eskatzeko prozedura ezartzen dute 200.000 eurotik gorako eta 1 milioi eurotik beherako obra kontratuetan eta 60.000 eurotik gorako eta 100.000 eurotik beherako gainerako kontratuetan. 200.000 eurotik gorako lanak eta 60.000 eurotik gorako gainerako kontratuak publikotasuna duen prozedura ireki edo negoziatu bidez esleitu behar dira, SPKLn kontratu hauek dituzten ezaugarriekin. Berebat, kontratatziorako barne aginpideek 50.000 eurotik beherako kontratuetan eskaintza bakarra egin behar izatea arautzen dute eta honenbestez, ez dira SPKLn 175.a artikuluan eskatutako printzipioak bermatzen.

##### **Irizpideak**

- Aztertu diren 16 kontratazio espedienteetarik 11tan (3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 11, 13, 14 eta 15 zk.), aztertutako aldian 16,4 milioi euroren egikaritza izan dutenak, Pleguetan ezarritako balorazio irizpideak modu generikoan definituak daude eta ez dituzte argi erakusten puntuatu asmo ziren helburuak.

##### **Balorazioak**

- Aztertu ditugun espedienteetarik 9tan (3, 4, 6, 7, 9, 11, 12, 13 eta 15 zk.), aztertutako aldian 15,4 milioi euroren egikaritza izan dutenak, aurkeztutako proposamenen balorazio txostena ez da arrazoitu eta puntuak emate hutsera mugatzen da.

#### **III.2 BESTELAKOAK**

- 2011ko ekitaldian 3,1 milioi euroren zenbatekoa ordaindu da 15/2010 Legeak agindutako epeen ostean. Ordainketen batez besteko epe haztatua 29 egunez luzatu da.



#### IV. JARDUERAREN ANALISIA, 2008-2011

BECek diru-sarrerak, nagusiki, honako hauetatik eskuratzen ditu: pabiloietan azokak egitetik, Sozietateak berak zein hirugarrenek antolatutakoak; hainbat aretotan egindako konbentzio eta kongresuetatik; eta Bizkaia Arena pabiloian izaera ugariko ekitaldiak antolatzetik.

Hona hemen aztertutako aldian BECen emaitzen kontu analitikoak, jardueren arabera bereziak:

	Euroak milakotan			
	2008	2009	2010	2011
<b>BEC-EK ANTOLATUTAKO AZOKAK</b>				
Diru-sarrerak	19.221	9.126	9.544	8.001
Gastuak	(10.523)	(8.227)	(6.242)	(6.218)
Marjina	8.698	899	3.302	1.783
<b>HIRUGARRENEK ANTOLATUTAKO AZOKAK</b>				
Diru-sarrerak	1.245	1.672	1.321	1.104
Gastuak	(1.005)	(1.349)	(981)	(843)
Marjina	240	323	340	261
<b>AZOKA JARDUERA GUZTIRA</b>				
Azoken sarrerak	20.466	10.798	10.865	9.105
Azoken gastuak	(11.528)	(9.576)	(7.223)	(7.061)
<b>Azoken marjina</b>	<b>8.938</b>	<b>1.222</b>	<b>3.642</b>	<b>2.044</b>
<b>KONBENTZIOAK, BIZKAIA ARENA ETA BESTE</b>				
Konbentzio eta Kongresuen sarrerak	1.079	771	1.145	751
Bizkaia Arenaren sarrerak	1.249	1.429	869	475
Bestelako sarrerak	1.558	1.289	1.119	937
Langileria gastuak	(4.899)	(5.641)	(4.837)	(4.373)
Gainerako gastuak	(7.108)	(6.823)	(6.287)	(5.694)
<b>EBITDA</b>	<b>817</b>	<b>(7.753)</b>	<b>(4.349)</b>	<b>(5.860)</b>
Amortizazioa, zuzkidurak eta finantzaketa	(34.719)	(35.554)	(35.295)	(35.158)
<b>Ekitaldiaren emaitza</b>	<b>(33.902)</b>	<b>(43.307)</b>	<b>(39.644)</b>	<b>(41.018)</b>

Emaitzen kontu analitiko hauetan, diru-sarrerak jarduera bakoitzetik eskuratzen diren haiek dira; azokaren jardueraren kasuan, gastuek zuzenean sortutako haiez gain, hala nola, publizitatea, merkataritza sustapena, erakusketa zerbitzuen kostuak, e.a. BECen gastu finkoen atal bat ere jasotzen dute, hala nola, argindarra, gasa, aseguruak, telefonia, zaborrak, mantentze kontratuak, garbiketa, ziurtagiriak, informatika ekipo eta programak, galdarak, laguntzaileen azpi-kontratazioak, zaintza eta mantenu-lanak; hau guztia muntaia, jasotze eta jarduera egunen arabera. Inola ere ez dira jarduerari atxikitako gastu modura langile gastuak barne hartzen, zuzenean esleigarri diren komisio, zerga eta beste gastu finko batzuk salbuetsita, "Gainerako gastuak" idazpuruan jasotzen direnak.

##### IV.1 AZOKA JARDUERA

Sarrera iturri nagusia azoka jarduera da, aztertutako aldian izan diren sarrera guztien gainean % 80 egiten duena eta hortik % 90 BECek antolatutako azokei dagokie.



Epe horretan guztian izaera oso bestelakoa izan duten 84 azoka antolatu dira; horietatik 62 BECek antolatu ditu eta 22, hirugarrenek; guzti horietatik 24, profesionaleri zuzendu zaizkie eta 60, berriz, publikoari.

Ondoko taulan azoka kopuruak izan duen bilakaera ikus daiteke antolatzailearen, hartzailearen eta fakturatutako metro karratuen arabera bereziak:

Azoka mota	2008		2009		2010		2011	
	fakturatutako kop.	m <sup>2</sup>	fakturatutako kop.	m <sup>2</sup>	fakturatutako kop.	m <sup>2</sup>	fakturatutako kop.	m <sup>2</sup>
<b>BECEk antolatutako azokak</b>	<b>13</b>	<b>96.343</b>	<b>17</b>	<b>46.063</b>	<b>14</b>	<b>53.110</b>	<b>18</b>	<b>50.743</b>
Profesionalak .....	5	70.942	7	21.827	4	28.890	6	20.001
Publikoa.....	8	25.401	10	24.236	10	24.220	12	30.742
<b>Hirugarrenen azokak</b>	<b>4</b>	<b>21.860</b>	<b>4</b>	<b>18.520</b>	<b>6</b>	<b>24.175</b>	<b>8</b>	<b>29.312</b>
Profesionalak .....	-	-	-	-	1	390	1	1.200
Publikoa.....	4	21.860	4	18.520	5	23.785	7	28.112
<b>AZOKAK GUZTIRA</b>	<b>17</b>	<b>118.203</b>	<b>21</b>	<b>64.583</b>	<b>20</b>	<b>77.285</b>	<b>26</b>	<b>80.055</b>

BECEk antolatutako azoken kasuan m<sup>2</sup>-ak erakusketariei fakturatutakoak dira; aldiz, hirugarrenen kasuan okupatutako azalerari dagozkio, bai erakusketariei, bai beste parte-hartze batzuetarako –demostrazioak, desfileak, erakusketak, e.a.- erabilitakoak. BECEk antolatutako eta profesionaleri zuzendutako azoketako baten 2010 eta 2011ko saioak Londresen eta Ginebran antolatu ziren, hurrenez hurren (ikus A.7); honenbestez, aurreko taulak ez ditu horiei dagozkien m<sup>2</sup> jasotzen.

BECEk profesionalentzako antolatutako azokek, aztertutako aldian 15 azokako batez bestekoa izan duena, beheraldi nabarmena izan dute fakturatutako m<sup>2</sup>-ei dagokienez; horrek erakusten du jarduera mota honen etekin ekonomikoa gutxitu egin dela. Aldiz, publikoarentzat antolatutako azokek, batez bestean fakturatutako azalerak behera egin badu ere, kopuruak gora egitean, azalera osoa ere hazi egin da eta ondorioz, etekin ekonomikoak ere gora egin du.

Hirugarrenek antolatutako azoken kasuan, 2008an 4 egitetik 2011n 8 egitera aldatu den arren, azertu dugun epean sarrerek % 11 egin dute behera. Gehientsuenak publikoari zuzendutako azokak dira; profesionalentzako azoka bakarra egin zen 2010 eta 2011n eta garrantzia txikikoa izan zen.

Sarreren bilakaera aztertzeko gogoan izan behar da azoka nagusienak bi urtez behin egiten diren haiek direla eta honenbestez, alderaketa urte bikoiti edo bakoitien artean egin behar da. Taulan ikus daiteke aztertutako aldi osoan azoka jarduerak eragindako sarreren % 61 BECEk profesionalentzako antolatutako azokei dagokiela:



	Euroak milakotan						
	2008	2010	% Bariaz. 08/10	2009	2011	% Bariaz. Mota/Guzt. 09/11	08-11
Profesionalentzako azokak .....	16.097	6.093	(% 62)	5.274	4.038	(% 23)	% 61
Publikoarentzako azokak.....	3.124	3.451	% 10	3.852	3.963	% 3	% 28
Hirugarrenek antolatutako azokak.....	1.245	1.321	% 6	1.672	1.104	(% 34)	% 11
<b>GUZTIRA</b>	<b>20.466</b>	<b>10.865</b>	<b>(% 47)</b>	<b>10.798</b>	<b>9.105</b>	<b>(% 16)</b>	<b>% 100</b>

Profesionalentzako azoketan badaude 3 –BIEMH, Ferroforma eta Ekoizpenerako Teknologia eta Makineria azoka- bi urtean behin egin arren, BECek aztertutako aldi antolatu dituen azoketan eskuratutako diru-sarreraren % 53 eragin dutenak.

Azoka hauen datu ekonomikoak eta BECek antolatutako azoketan duten garrantzia, ondoko taulan ikus daitezke:

	2008	2009	2010	2011
<b>BEC-EK GUZTIRA ANTOLATUTAKO AZOKAK</b>				
Sarrerak (euroak milakotan).....	19.221	9.126	9.544	8.001
Fakturatutako m.....	96.343	46.063	53.110	50.743
M <sup>2</sup> -aren batez besteko prezioa:.....	101	87	89	60
<b>BIEMH (2008 eta 2010)</b>				
Sarrerak (euroak milakotan).....	12.522	-	5.335	-
Fakturatutako M <sup>2</sup> .....	56.908	-	25.876	-
M <sup>2</sup> -aren batez besteko prezioa:.....	131	-	122	-
<b>FERROFORMA (2009 eta 2011)</b>				
Sarrerak (euroak milakotan).....	-	2.834	-	2.370
Fakturatutako M <sup>2</sup> .....	-	14.575	-	12.648
M <sup>2</sup> -aren batez besteko prezioa:.....	-	114	-	93
<b>TEKNOLOGIA ETA MAKINERIA AZOKA (2009 eta 2011) (*)</b>				
Sarrerak (euroak milakotan).....	-	(14)	-	1.185
Fakturatutako M <sup>2</sup> .....	-	-	-	6.210
M <sup>2</sup> -aren batez besteko prezioa.....	-	-	-	66
<b>BIEMH, FERROFORMA ETA TEKN. %</b>				
BECek antolatutako azoken sarrerak.....	% 65	% 31	% 56	% 44

(\*) 2009ko azoka ez zen egin

Honela, bada, BIEMHk aztertutako aldi BECek antolatutako azokek eragindako sarreraren % 39 egin du eta Ferroformak eta Teknologia eta Makineria Azokak, berriz, % 14.

Ikusi ahal izan dugunez, BIEMH da azoka guztietan garrantzitsuen eta aparteko garrantzia hartzen du, gainera, Estatuko makina-erreminta sektorearen % 80 EAEn biltzen delako. Azoka egiteak 2008ko ekitaldian EBITDA positiboa eskuratzea ekarri zuen. 2010ean egin zen hurrengo azokak % 55 egin zuen behera alokatutako m<sup>2</sup>-tan eta 56.908tik 25.876ra jaitsi zen; sarreraren gaineko marjina ere % 7 murriztu zen. Honen ondorioz, BECek 2010ean antolatutako azokek 2008koaren aldean izan duten sarreraren jaitsiera, % 74an BIEMHk azoka batetik bestera izan duen beheraldi izugarriak eragin du.

Ferroformak garrantzia ekonomiko txikiagoa du fakturatutako m<sup>2</sup> kopurua txikiagoa izateagatik. Esate batera, esan daiteke 2009an fakturatutako m<sup>2</sup> kopurua 2007koa baino % 58 txikiagoa izan dela; orduan, 35.077 m<sup>2</sup> egin zituen.

Teknologia eta Makineria Azoka da garrantziz txikiena hiru azoketan; esan beharra dago 2009an azoka egiteko izapideei ekin bazitzairen ere, honek berekin zuen gastuarekin, azkenean ez zela egin sektoreak interesik erakutsi ez zuelako. 2011n egin zenean guztira 6.210 m<sup>2</sup> fakturatu ziren; 2007koarekiko % 52ko beheraldia egiten du.

BECek publikoari zuzenduta antolatutako azokak 2008an 8 izatetik, 2011n 12 izatera aldatu da eta kontzeptu honekin eskuratutako diru-sarrerak % 27 gehitu dira. Sarreren igoera honek aztertutako aldian azoka profesionalen diru-sarreren beherakadaren % 7a soilik berdindu du.

Azoka hauetatik, Expoconsumo, Expovacaciones eta Expomoda azokek eskuratutako diru-sarrerak, BECek publikoarentzat antolatutako azoken sarrera guztien gainean % 39 egiten dute (ikus A.11).

## IV.2 KONGRESU JARDUERA

Jarduera honetako diru-sarrerak aretoen alokairutik eta zerbitzuak ematetik datoz eta aztertutako aldian BECen diru-sarreren % 6 egin dute; hiru jarduera mota bereiz ditzakegu: jende anitzeko azterketa eta oposizioak; ez dira deigarriak kopuru aldetik, bai, ordea, partaide kopuru aldetik; azokek eragindako kongresu eta bilerak; eta gainerako konbentzio eta bilerak. Aztertutako aldian egindako jarduera kopurua honakoa izan da:

Ekitaldia	Azterketak	Azokek		Guztira	Gainerako		
		eraginak	jarduerak		Azterketak	eraginak	jarduerak
2008 .....	13	67	72	152	% 9	% 44	% 47
2009 .....	20	40	77	137	% 15	% 29	% 56
2010 .....	19	32	79	130	% 14	% 25	% 61
2011 .....	19	45	57	121	% 16	% 37	% 47
<b>GUZTIRA</b>	<b>71</b>	<b>184</b>	<b>285</b>	<b>540</b>	<b>% 13</b>	<b>% 34</b>	<b>% 53</b>

Aurreko informazioa aztertuta ondoriozta daiteke azokei lotutako jarduerak behera egin badute ere, IV.1 atalean adierazitakoarekin bat datorrena, gainerako jarduerari eutsi egin zaiela 2011ra arte eta ekitaldi horretan jo dutela izugarrizko beheraldia.

Hona hemen jarduera honek eragindako diru-sarrerak:

	Euroak milakotan			
	2008	2009	2010	2011
Diru-sarrerak .....	1.079	771	1.145	751
2008 Oinarr.100 .....	100	71	106	70



Sarrerak BIEMH egitearen edo ez egitearen baitakoak dira; gogoan izan behar da jarduera honek eragindako sarrerak ez daudela soilik jarduera kopuruaren baitan, horien garrantziaren baitan baizik. Jarduera honek eskuratu duen marjinak, batik bat azterketez besteko jardueretatik datorrena, bere horretan iraun du aztertutako aldiaren zehar.

Azterketez besteko jarduera bakoitzeko parte hartzaile kopuruak gora egin du epe horretan zehar.

Ekitaldia	Jarduerak	Parte hartz.	Jarduerako parte hartz.
2008.....	139	60.513	435
2009.....	117	47.163	403
2010.....	111	68.764	619
2011.....	102	57.170	560
<b>GUZTIRA</b>	<b>469</b>	<b>233.610</b>	

### IV.3 BIZKAIA ARENA PABILOIAN EGINDAKO EKITALDIAK

Bizkaia Arena pabiloian egindako jardueretatik eskuratutako sarrerek BECen sarrera guztien gainean % 6 egin dute. Epe guztian zehar kontzertuak, saskibaloi partidak, Disney on Ice bezalako ikuskizunak, bertsolarien finana, pressing catch, e.a. eta mota guztietako bilera eta mitin politikoak egin dira bertan. Hona hemen jarduera motaren arabera xehapena:

Ekitaldia	Jarduera egunak	Jarduera mota				
		Ikuskizuna	Kontzertua	BB partida	Bestel.	Guztira
2008.....	23	5	6	3	6	20
2009.....	28	5	6	14	1	26
2010.....	32	3	9	16	1	29
2011.....	8	3	3	-	1	7
<b>GUZTIRA</b>	<b>91</b>	<b>16</b>	<b>24</b>	<b>33</b>	<b>9</b>	<b>82</b>

Bizkaia Arena pabiloiaren okupazioa guztira lau urteetan zehar 317 egunekoa izan da, muntaketa eta jasotzeko egunak barne hartuta eta horrek urteko batez besteko % 22ko okupazioa egiten du, azoka jarduera albo batera.

Jarduera bakoitzeko urteko parte hartzea honakoa izan da:

Ekitaldia	Jarduera motaren arabera parte hartzea				Guztira
	Ikuskizuna	Kontzertua	BB partida	Beste batzuk	
2008.....	38.800	35.500	35.000	30.500	139.800
2009.....	50.100	79.300	121.800	1.500	252.700
2010.....	20.500	63.400	227.465	2.500	313.865
2011.....	32.900	27.500	-	10.000	70.400
<b>Batez besteko parte hartzea</b>	<b>8.894</b>	<b>8.571</b>	<b>11.644</b>	<b>4.944</b>	<b>9.473</b>





Aztertutako aldian gauzatutako kirol jardueri dagokienez esan behar da 2009 eta 2010eko ekitaldietan, saskibaloitako taldeak, orduan Bilbao Bizkaia Basket zena, 2009-2010 Ligako partidak jokatu zituela eta 2010eko urtean, gainera, Saskibaloiko Errege Kopa jokatu zuela; honek jarduera eta ikusle kopurua izugarri gehitu zuen.

Jarduera honek eragin dituen diru-sarrerak honakoak izan dira:

	Euroak milakotan			
	2008	2009	2010	2011
Diru-sarrerak .....	1.249	1.429	869	475
2008 oinarr.100.....	100	114	70	38

Bizkaia Arena pabiloian egindako jardueretatik eskuratutako diru-sarrerak behera egin dute 2010 eta 2011n, azken ekitaldi honetan erabilera egunek izan duten beheraldiaren araberakoa izanik; 2010eko beheraldiaren arrazoia, baina, saskibaloiko partidek 2009ko urritik aurrera pabiloia alokatzeetatik diru-sarrerarik ez sortu izana da, BECek bere gain hartu dituela gastu guztiak; kasu honetan, diru-sarrera bakarrak aparkalekua erabiltzetik eta azokako tabernen ustiatetatik eskuratutakoak izan dira; horrela, bada, jokatutako partida hauek 2010ean 341.038 euroren marjina negatiboa utzi dute.

#### IV.4 BESTELAKO SARRERAK

Hona hemen gainerako sarreraren xehapena, aztertutako aldian BECek azoka jardueran eskuratu dituenen % 8 egin dutenak:

	Euroak milakotan			
	2008	2009	2010	2011
Kanpoko muntaiak .....	408	515	230	41
Metroko aparkaleku gomendatua.....	401	313	317	326
Rappelak eta emakidak.....	70	95	118	77
Atzerriko azoketan guneak saltzeagatik kobrantzak.....	231	72	89	66
BECen bulego, biltegi, antena, aretoen alokairuak .....	328	270	256	305
Gainerakoa.....	120	24	109	122
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.558</b>	<b>1.289</b>	<b>1.119</b>	<b>937</b>

**Kanpoko muntaiak:** Beste herrialde batzuetako azoketan jarduerak antolatzetik eskuratutako diru-sarrerak dira; honela, bada, aldi horretan azokak egin dira Hannover, Paris, Hanburgo, Oslo, Lyon, Milan... Jarduera mota hau urritzen joan da aztertutako urteetan zehar, ia guztiz desagertu arte; honela, bada, 2008an 3 jarduera egin ziren; 6, 2009an; bakarra 2010ean eta bakarra 2011n.

**Metroko aparkaleku gomendatua:** BECek “aparkalekua alokatzeko” kontratua izenpetua du BGPrekin Metroaren aparkaleku gomendatu modura erabil dadin; horregatik, urtero ordaintzen zaio BGPri erabilera kontzeptuan. 2008ko kopurua handiagoa da aparkalekua



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

egokitzeko lanak besarkatzen dituelako, Metroaren erabiltzaileen beharrianetara moldatu ahal izateko, 74.660 euroren zenbatekoan.

**Rappelak eta emakidak:** Jatetxea, kafetegia, e.a. ustiatzeko kontratuen esleipenaren arabera, BECek hainbesteko bat jasotzen du bakoitzaren fakturazioen arabera.

**Atzerriko azoketan guneak saltzeagatik kobrantzak:** BECek komisioak kobratzen ditu atzerrian Espainiako erakusketariei guneak saltzeagatik. BECek nazioarteko azoken antolatzaileekin (Turret, DMG...) izenpetutako akordioen arabera, haien ordezkari lanak egiten ditu Espainian eta haiek atzerrian antolatzen dituzten azoketarako guneak saltzen dizkie espainiar enpresei.

**Alokairuak:** BECek kobratu egiten du lokalen alokairuarengatik, besteak beste, BFAri, bidai agentzia bati eta ibilgailu elektrikoek kargak kudeatzen dituen enpresa bati antenengatik eta dorreko 8 bulego-solairuetatik 2 solairuren alokairuagatik . Sozietatea solairu gehiago alokatzeko aukera aztertzen ari da, gaur egun bertako langileek okupatzen dituztenak.

**Gainerakoa:** BEC Solar, EIEMren (ikus A.2) eguzki plakek, BECen estalkian jarritakoak, sortutako argindarra ere saltzen du, baina sozietate horri (BEC eta EEEK partaidetutakoa) argindar horrengatik kopuru bera ordaintzen dio.

#### **IV.5 BEC-EN JARDUERAK 2008-2011 ALDIAN IZAN DUEN BILAKAERARI BURUZKO ONDORIOAK**

Aurreko ataletan mamitutako BECen negozio atal ezberdinen azterketa banakakoaren ondoren, ondoriozta dezakegu aztertutako aldiaren jarduerak nabarmen egin duela behera, batik bat, BECek profesionaleri zuzendurik antolatu dituen azoketan, kongresu-jardueran eta Bizkaia Arenarenean; egitate hau, gainera, Sozietatearen Zuzendaritzak prestatutako informaziotik ondoriozta daiteke, non Administrazio Kontseiluak ekitaldi bakoitzerako onetsitako aurrekontuen betetze maila aurkezten den, ekonomia eta fakturatutako m<sup>2</sup>-en terminoetan.

Jardueraren beheraldi honek BECen merkataritza jardueretatik eskuratutako diru-sarrerek % 54 behera egitea ekarri du eta horren eragile % 87an azoka jardueraren beherakada izan da, 2008an pabiloien % 35eko okupazio maila izatetik, 2011n % 25ekoa izatera aldatu dena (ikus A.8) eta zehatzago profesionaleri zuzenduriko azokengatik, diru-sarrerek % 75eko beheraldia izan dutela. Ordea, BECek publikoari zuzendurik antolatutako azoketatik eskuratutako diru-sarrerek % 27 egin dute gora aztertutako aldiaren, 2008an azoka jardueraren guztizkoaren gainean % 15 egitetik, 2011n % 44 izatera aldatuz. Kongresuko jarduerak eragindako sarrerak % 30 jaitsi dira epe horretan, Bizkaia Arenak eskuratu dituenek % 62 eginez eta gainerako diru-sarrerek, % 40.

BECen azoka jardueraren gaineko analisia ez daiteke estatu mailako azoken egoera orokorraren bilakaerari buruzko hainbat irizpenetatik bereiz. Honela, bada, eskura dagoen informaziotik ondorioztatzen da, HKEEK fiskalizatu ez badu ere, Estatuan 2008 eta 2010 bitartean erakusketa espazioa % 13 hazi zela eta m<sup>2</sup>-n izandako demandak % 24 egin zuela behera.



Horrez gainera, demandaren beherakada eragin duten faktore modura bereizi dira ekonomia krisia batetik, behar bada azoka sektoreko balizko bezero kopurua murriztea ekarri duena eta enpresa talde handiak agertu izana bestetik, erosketa gune handiak eta negoziazio ahalmen handiagoa dituztenak eta ohiko azoken aldean baliabide alternatiboak erabiltzen dituztenak. Honi gehitu behar zaio, gainera, teknologia berrien sorrera, komunikazioa errazagoa egiten dutenak eta berrikuntzak eta merkataritzako informazioa modu arin eta ekonomikoagoan egitea bideratzen dutenak.

Honen ondorioz, badirudi ez dela erraza azoka jarduera berreskuratzea, nahiz helburu horretan BIEMH egiteko urte bikoitiak gainerakoetatik bereizi behar diren; izan ere, azoka honek 2008an eta aurrekoetan egin ziren okupazio eta batez besteko m<sup>2</sup>-aren prezioei eustea lortuko balu, BECen azoka jarduerak eragindako gastu guztiei aurre egin ahal izango litzateke.

Alabaina, ekitaldi bakoitietan, BIEMHrik gabe, 2011ko marjinak aintzat hartuta, egindako azoka kopurua baino ia hiru aldiz gehiago egin beharko litzateke BECen merkataritza jardueraren gastuak osorik berdintzeko.

Kongresuei dagokienez, jarduera osotasunean azterturik eta krisia eta jada aipatutako eskaintza igoera bezalako alderdiak alde batera, gerora begira aztertu egin behar da jarduera hauetarako tokiko erakundeek egindako eskaintzek izan duten igoera, 2012an egindako Euskalduna Jauregiaren zabalkuntza esaterako; izan ere, orain arte espazio beharrian behartuta BECen egin diren hainbat konbentzio, zabalkuntza egin ostean aipatutako kongresuen jauregian egitera alda daiteke. Honi EHUko Paraninfoaren eraikuntza gehitu behar zaio, 2011ko otsailean inauguratu zena, eta BECeko konbentzio eta kongresu jarduerarekin lehia zuzenean dagoena.

Bestetik, BFAk eta Bilboko udalak 2010ean Miribillako Kirolen Jauregia inauguratu dute, printzipioz kirol jarduerak egitera emana, BECeko Bizkaia Arenarekin zuzeneko lehian sartzen dena. Obra hauek hein berean finantzatu dituzte Bilboko Udalak eta BFAk, biak ere BECen akziodun direnak.

Egungo eskaeren beherakadaren eta instalakuntzen tokiko eskaintzaren gorakadaren aurrean, batzuetan lehia zuzena direna, gomendagarria litzateke Erakunde Publikoak BECen Zuzendaritzarekin batean egoera berraztertzea eta azoka, kongresu eta bestelako jardueren egiazko demanda egun diren instalakuntza kopuruarekin alderatzea, jarduerak erakartzeko eta horiek non egin erabakitzeke unean kudeaketa eta erabakiak hartzeko batasun bat lortuz, erakundeen euren artean norgehiagoka aritzea saihestuz.



## V. 2008-2011-KO FINANTZA ANALISIA

### V.1 BILAKAERA FINANTZARIOA

BECen finantza azterketa baten ondorioetarako sarrera eta gastu kontzeptuen eta beste magnitude esanguratsu batzuen datu ekonomikoek izan duten bilakaera 2008-2011 aldian honakoa izan da:

	Euroak milakotan				
	2008	2009	2010	2011	2011/2008
<b>Ustiapen sarrerak</b> .....	<b>24.352</b>	<b>14.287</b>	<b>13.997</b>	<b>11.268</b>	<b>(% 54)</b>
Erakusketa espazioak .....	9.697	4.017	4.724	3.024	(% 69)
Bisitarien sarrerak.....	820	862	876	936	% 14
Zerbitzuak.....	12.840	8.708	7.902	6.722	(% 48)
Ustiapeneko bestelakoak.....	995	700	495	586	(% 41)
<b>Ustiapen gastuak</b> .....	<b>23.535</b>	<b>22.040</b>	<b>18.346</b>	<b>17.128</b>	<b>(% 27)</b>
Hornidurak.....	445	314	218	148	(% 67)
Langileria .....	4.951	5.644	4.851	4.389	(% 11)
Publizitatea .....	1.615	1.797	1.091	1.140	(% 29)
Merkataritza sustapena.....	2.320	1.578	1.280	1.135	(% 51)
Muntaia eta egitea.....	5.251	4.755	4.261	3.953	(% 25)
Kanpoko zerbitzuak .....	3.032	2.810	2.533	2.636	(% 13)
Erakusketa zerbitzuen kostua.....	5.287	4.084	3.411	2.861	(% 46)
Tributuak .....	625	642	669	661	% 6
Bestelako kudeaketa gastuak .....	9	416	32	205	-
<b>EBITDA</b>	<b>817</b>	<b>(7.753)</b>	<b>(4.349)</b>	<b>(5.860)</b>	
Amortizazioak (A.2) .....	18.932	18.815	18.771	18.826	
Trafiko zuzkidurak .....	44	60	18	36	
<b>Ustiaketaren emaitza</b>	<b>(18.159)</b>	<b>(26.628)</b>	<b>(23.138)</b>	<b>(24.722)</b>	
Finantza sarrerak.....	1.488	443	278	161	
Finantza gastuak.....	17.231	17.122	16.784	16.457	
<b>Emaitza finantzarioa</b>	<b>(15.743)</b>	<b>(16.679)</b>	<b>(16.506)</b>	<b>(16.296)</b>	
<b>Ekitaldiaren emaitza</b>	<b>(33.902)</b>	<b>(43.307)</b>	<b>(39.644)</b>	<b>(41.018)</b>	
Kapital zabalkuntzak (a.3).....	24.040	24.040	24.040	24.040	
Zorpetzea 12.31n (A.4).....	378.000	371.875	365.500	358.750	
Eskudirua eta aktibo likid. (A.6) .....	5.435	6.093	8.896	7.998	
Finantza inbertsioak e/lab. (A.6).....	19.033	13.322	4.661	1	

**Ustiapen sarrerak:** BECen sarrera iturri nagusiak erakusketetarako espazioen alokairuek eta erakusketariei emandako zerbitzuek eragin dituzte, zeinak horiei alokatutako m<sup>2</sup>-en eta hauek eskatzen dituzten zerbitzuen baitakoak diren, azokaren, sektoreak bizi duen egoeraren e.a. araberakoak.

**Erakusketa espazioak:** BECek antolatutako azoketan erakusketa espazioen alokairuetatik eskuratutako etekinak % 69ko beheraldia izan du aztertutako aldian, izan ere, murriztu egin baita alokatutako azalera eta fakturatutako batez besteko prezioa; azken magnitude hau azokarekin, horren iraupenarekin, duen garrantziarekin e.a. lotzen da.



	2008	2009	2010	2011	2011/2008
<b>AZOKA PROFESIONALAK</b>					
Erakusketa guneak (euroak milakotan).....	8.463	2.604	3.428	1.701	(% 80)
Fakturatutako M <sup>2</sup> .....	70.942	21.827	28.890	20.001	(% 72)
m <sup>2</sup> -aren batez besteko prezioa (euroak).....	119	119	119	85	(% 29)
Erakusketari kopurua .....	1.093	513	546	560	(% 49)
Fakturatutako m <sup>2</sup> batez besteko azalera .....	65	43	53	36	(% 45)
<b>PUBLIKOARENTZAKO AZOKAK</b>					
Erakusketa guneak (euroak milakotan).....	1.234	1.413	1.296	1.323	% 7
Fakturatutako M <sup>2</sup> .....	25.401	24.236	24.220	30.742	% 21
m <sup>2</sup> -aren batez besteko prezioa: .....	49	58	54	43	(% 11)
Erakusketari kopurua .....	393	612	589	639	% 62
Fakturatutako m <sup>2</sup> batez besteko azalera.....	65	40	41	48	(% 25)
<b>BEC-EK GUZTIRA ANTOLATUTAKO AZOKAK</b>					
Erakusketa guneak (euroak milakotan).....	9.697	4.017	4.724	3.024	(% 69)
Fakturatutako M <sup>2</sup> .....	96.343	46.063	53.110	50.743	(% 47)
m <sup>2</sup> -aren batez besteko prezioa (euroak).....	101	87	89	60	(% 41)
Erakusketari kopurua .....	1.486	1.125	1.135	1.199	(% 19)
Fakturatutako m <sup>2</sup> batez besteko azalera .....	65	41	47	42	(% 35)

Aurreko taulan jasotako parametroen ekitaldi arteko bariazioak hobeto ulertzeko gogoan izan behar da IV.1 atalean aipatutakoa; bertan esaten da 2008 eta 2010eko ekitaldietan BIEMH egiten dela, azokarik garrantzitsuena dena eta 2009 eta 2011n egiten direla Ferroforma eta Teknologia eta Makineria Azoka, bien artean lehenengoak duen garrantzia eta ospea izan gabe.

**Bisitarien sarrerak:** Bisitarien sarrerak eragindako diru-sarrerak % 14 egin dute gora aztertutako aldiaren, publikoarentzako azokak gehitu izanaren ondorioz, jada jardueraren analisia egin den atalean aipatu duguna.

**Zerbitzuak:** Erakusketariei eta/edo jarduera ezberdinetako bezeroei emandako zerbitzuak barne hartzen ditu nagusiki eta alokairu, aparkaleku, katalogo eta kanpoko muntaiek eragindako diru-sarrerak. Hona hemen xehapena:

	Euroak milakotan				
	2008	2009	2010	2011	2011/2008
Alokairuak .....	1.463	1.345	1.401	1.048	(% 28)
Erakusketariei zerbitzuak.....	7.787	4.966	4.585	3.836	(% 51)
Jardueretarako aparkalekua .....	564	439	526	436	(% 23)
Metroko aparkaleku gomendatua .....	401	313	317	326	(% 19)
Publizitate-sarrerak.....	233	47	93	61	(% 74)
Babesletzak.....	377	932	281	650	% 73
Osagarrien sarrerak .....	445	387	384	254	(% 43)
Atzerriko azoken komisiok .....	1.570	279	315	111	(% 93)
<b>ZERBITZUAK GUZTIRA</b>	<b>12.840</b>	<b>8.708</b>	<b>7.902</b>	<b>6.722</b>	<b>(% 48)</b>

Sarrera hauetarik gehienak jarduerari lotuak daude eta hein handi zein txikiagoan garapen bertsua izan dute, hala nola, publizitateko sarrerek, erakusketariei emandako zerbitzuek edo sarrera osagarriek, hirugarrenek ustiatutako kafetegi, jatetxe eta abarrek eragindako diru-sarrerek, alegia; izan ere, BECek antolatutako azoka profesionalei lotuagoak daude eta hauek izan dute beheraldirik handiena; beste batzuek, berriz, alokairuek eta aparkalekuko diru-sarrerek esaterako, hein txikiagoan egin dute behera bestelako zeinahi jarduerarekin lotura partekatuagoa dutelako.

Bestetik, BECen jarduerarekin lotu gabeko diru-sarrerek daude, BECek BGPrekin duen Metroaren aparkaleku gomendatuaren kontratuak eragiten dituenak; horren beherakadaren arrazoa 2008an BECeko aparkalekuaren instalakuntzak Metroaren beharizanetara egokitzeko hainbat lan egin izana da soilik; honela, bada, obra horiek kentzen baditugu, diru-sarrerek ia bere horretan eusten diote aztertutako aldian.

Berebat, babesletza sarrerek ondoko jarduera hauetarako eskuratu dira:

	Euroak milakotan			
	2008	2009	2010	2011
Exponatur .....	170	152	136	150
Algusto .....	-	345	-	248
Bizkaia Arenako jarduerak.....	124	120	-	120
Etorkizuneko Energiaren Europako Foroa (EEEF).....	-	210	-	-
Fosminer .....	29	35	33	30
Gainerakoa .....	54	70	112	102
<b>GUZTIRA</b>	<b>377</b>	<b>932</b>	<b>281</b>	<b>650</b>

Atzerrian azoketarako guneak saltzeagatik komisioei dagokienez, BECek berezko dituen jardueraz besteko bilakaera dute eta nazioarteko azoken antolatzaileekin egindako akordioen eta azoka horiek antolatzen dituzten erakusketetan espainiar enpresei saldutako azoka guneen arabera dira; horiek % 93 egin dute behera aztertutako aldian, nahiz beheraldi honen arrazoa, batik bat, 2008an 1 milioi euroren zenbatekoaren ingresoak egin izana den, Koloniako azokarekin Practical World azokan parte hartzeko egindako akordioaren ondorioz; akordio hori, ordea, baliogabetu egin zen gerora eta ez zen berriz egin.

**Ustiapen gastuak:** % 27 egin dute behera aztertutako aldian, 6,4 milioi euro. Beherakada honen arrazoiak dira % 75ean, erakusketari lotutako gastu aldakorrek jaitsi izana eta % 25ean, gastu finkoak jaitsi izana; azken hauen artean azpimarratzekoa da epe horretan langileen gastuak % 11 murriztu direla, plantilla gutxitu delako eta 2010ean soldata jaitsi zitzaielako (ikus A.5) eta gainerako gastu finkoak % 17 murriztu direla, hein batean behintzat, egindako kontratazio berrietan eskuratutako aurrezkiaren ondorioz.

**EBITDAk** interes, zerga, balio-galera eta amortizazioen aurretik ustiaketaren mozkinaren zenbatekoa izan den erakusten du; honek negozioaren jarduerak berak sortutako diruzaintza erakusten du eta ikus daiteke aztertutako aldian 17,1 milioi euroren baliabideak erabiltzea ekarri duela, nagusiki azoka jarduerak behera egin duelako, IV. atalean ikus daitekeen moduan eta epe laburreko finantza inbertsioak ia osotasunean baliatzea eragin duela.



Eskuratu diren emaitza negatiboek enpresaren aktibo arruntak behera egitea ekarri du, finantza kaudimenaren koefizientea urrituz:

	Euroak milakotan			
	2008	2009	2010	2011
AKTIBO ARRUNTA (1).....	34.979	23.451	17.655	10.742
PASIBO ARRUNTA (2).....	25.320	20.063	18.706	17.141
Kaudimen koefizientea (1)/(2).....	1,38	1,17	0,94	0,63

### Zorpetzea eta kapital zabalkuntzak:

Sozietateak hiru mailegu ditu kontratatuak eta horien amortizazio eta interesek eragindako finantza zamari Eusko Jaurlaritzak eta BFAk urtero 24 milioi euroren zenbatekoan egiten duten kapital zabalkuntzen bitartez egiten diote aurre (ikus A.3 eta A.4). Hona hemen maileguen finantza fluxuak eta bazkideek 2008tik 2011ra arte gauzatutako zabalkuntzak:

	Euroak milakotan			
	2008	2009	2010	2011
Sindikatuak maileguen amortizazioa.....	-	-	-	-
IEBren mailegua amortizatzea.....	(5.875)	(6.125)	(6.375)	(6.750)
Sindikatuak maileguen interesak .....	(6.860)	(6.862)	(6.862)	(6.862)
IEBren maileguaren interesak.....	(10.595)	(10.328)	(10.051)	(9.762)
Kapital zabalkuntza .....	24.040	24.040	24.040	24.040
<b>Finantza fluxuak</b>	<b>710</b>	<b>725</b>	<b>752</b>	<b>666</b>

## V.2 AZTERKETA FINANTZARIOAREN ONDORIOAK

Aztertutako aldian BECek izan dituen finantza beharrianak bi aldetakoak izan dira: batetik, merkataritza jardueraren garapenak sortutakoak eta bestetik, obrak finantzatzeko hitzartutako maileguen eragindako finantza zamari aurre egiteko beharrezko ordainketek sortutakoak; baita epe horretan zehar inbertsioen ordainketek sortutakoak ere.

Maileguetatik eratorritako beharrian finantzarioei urtero BFAk eta Eusko Jaurlaritzak egin ohi duten 24 milioi euroren kapital ekarpenekin egin zaie aurre, aztertutako aldian 96,2 milioi euroren sarrerak eragin dituztenak; horiek era honetan baliatu dira: 68,2 milioi euro interesak finantzatzeko eta 25,1 milioi euro, IEBren maileguaren amortizazioak finantzatzeko; eta 2,9 milioi euroren geldikina sortu du, erabiltezin den diruzaintza kontu batera txertatu den, mailegu sindikatuak baldintzek agintzen zutenari jarraiki (ikus A.6).

2012 eta 2013an finantza gastuek gehi maileguen amortizazioak 23,3 milioi euroren zenbatekoa egingo dute ekitaldi bakoitzean, hitzartutako 24 milioi euroren kapital zabalkuntzen bidez kitatuko direnak; ordea, jada 2014an 150 milioi euroren mailegu sindikatuak iraungiko dira (ikus A.4) eta honenbestez, epe laburrera birnegoziatzeko aukera aztertu beharko da, edota kasua balitz, Eusko Jaurlaritzak eta BFAk zenbateko horri aurre egin beharko diote, erakunde hauen abala baitu; hala eta guztiz ere, birnegoziatutako balitz, jada ezin baliatuko da egungo % 4,57ko interes tipoaren estaldura (ikus A.4).

Birnegoziatzeko bidea baliatzen bada, aintzat hartu beharko da BEC proiektua finantzatzeko moldeak, urteko 24 milioi euroen ekarpenak alde batera, 2014an 150 milioi euro amortizatzea aurreikusten zuela, BNE zaharraren lursailak saltzetik eskuratutako funtsen bidez (ikus A.3), BECen ondoko lursailaren salmenta bidez (ikus A.2), hotela eraikitze erabiliko zena, eta BECek sortutako Ebitda positibo bidez, txosten hau idatzi dugun datan gauzatu ez diren konpromisoak.

BECEen jarduerak sortutako gainerako finantzaketa beharrak nagusiki epe horretan izandako EBITDA negatiboek eragin dituzte, 17,1 milioi eurorenak; horiek inbertsioen ordainketei gaineratzen badizkiegu, 26,5 milioi eurorenak, guztira 43,6 milioi euro behar izatea ekarri dute; horiek finantzatu dira aldi baterako finantza inbertsioak eginda, 2008ko urtarrilaren 1ean 41,3 milioi eurorenak zirenak, eta diruzaintza erabilgarriarekin, 2,3 milioi eurorenak.

Atal honetako hasierako taulan ikus daitekeen moduan, 2011ko abenduaren 31n diruzaintza saldoa 8 milioi euroena zen eta horietatik 6,8 milioi euro erabiltezinak ziren (ikus A.6). Honenbestez, itxura batera, 2012an 911.816 euroan aurrekontu egindako EBITDA negatiboari aurre egiteko adinako diruzaintza izango da, betiere aurreikusitako sarreraren % 3,8ko igoerari eustea eta % 14 eta 15 bitarteko langile gastu eta bestelako gastu finkoen murrizketei eustea lortzen bada. Honi dagokionez, 2012ko abuztuaren 31n eskura ditugun azken datuen arabera, EBITDAk 642.694 euroren desbideratze negatiboa izan duela ikus dezakegu, diruzaintza erabilgarria agortuko lukeena.

Nolanahi den ere, Sozietatearen Zuzendaritzak 2012ko urtarrilean erabiltezinak ziren saldoak erabiltzeko baimena eskuratu du; horrek 2012an zeinahi desbideratze negatibo gehigarri eta 2013ko EBITDA negatibo irargarriari aurre egiteko bide emango luke (ez da BIEMH egingo).

Datozen ekitaldiei begira, Sozietatea kostuak aurrezteko plana garatzen ari da; baita diru-sarrerak eta eskurako baliabideak optimizatzeko jardueraren kudeaketa eredu berria ere; alabaina, 2008-2011 aldian jardueraren gaineko azterketa egin ostean, aurreikus daiteke horri eutsi ahal izateko, akziodunen finantza eta ondare babes gehigarria beharko dela.





## VI. 2011-KO EKITALDIAREN URTEKO KONTUAK

## Egoeraren balantzeak

	Euroak milakotan			
AKTIBOA	2008	2009	2010	2011
<b>AKTIBO EZ ARRUNTA (A.2)</b>	<b>458.300</b>	<b>438.885</b>	<b>420.906</b>	<b>402.236</b>
Ibilgetu ukiezina.....	541	434	292	144
Ibilgetu materiala.....	454.962	435.654	417.817	399.295
Ibilgetuko inbertsioak.....	2.673	2.673	2.673	2.673
Elkartutako enpresetan inbertsioak e/luz.....	124	124	124	124
<b>AKTIBO ARRUNTA</b>	<b>34.979</b>	<b>23.451</b>	<b>17.655</b>	<b>10.742</b>
Izakinak.....	1.346	891	987	772
Merkataritzako zordunak eta kobratz. beste kontu batzuk.....	9.165	3.145	3.111	1.971
Salmenta eta zerbitzuak emateagatiko bezeroak.....	5.722	1.981	2.077	863
Langileria.....	21	27	23	22
Administrazio Publikoekin beste kreditu batzuk.....	3.422	1.137	1.011	1.086
Finantza inbertsioak epe luzera (A.6).....	19.033	13.322	4.661	1
Zorren balio adierazgarriak.....	8.231	10.864	4.660	-
Ondare baliabideak.....	3.257	1.507	1	1
Bestelako aktibo finantzarioak.....	7.545	951	-	-
Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak (A.6).....	5.435	6.093	8.896	7.998
<b>AKTIBOA GUZTIRA</b>	<b>493.279</b>	<b>462.336</b>	<b>438.561</b>	<b>412.978</b>

	Euroak milakotan			
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2008	2009	2010	2011
<b>ONDARE GARBIA (A.3)</b>	<b>86.604</b>	<b>64.538</b>	<b>48.281</b>	<b>32.073</b>
Berezko Funtsak.....	95.679	76.412	60.808	43.830
Kapitala.....	169.712	121.518	145.558	88.733
Erretserbak.....	6	6	6	6
Aurreko ekitaldietako emaitza negatiboak.....	(40.137)	(1.805)	(45.112)	(3.891)
Ekitaldiaren emaitza.....	(33.902)	(43.307)	(39.644)	(41.018)
Estaldua eragiketen ondorioz balio aldaketagatiko doiketak.....	(9.139)	(11.929)	(12.573)	(11.795)
Diru-laguntzak, dohaintzak eta jasotako legatuak.....	64	55	46	38
<b>PASIBO EZ ARRUNTA</b>	<b>381.355</b>	<b>377.735</b>	<b>371.574</b>	<b>363.765</b>
Epe luzeko hornidurak (A.5).....	341	306	251	220
Epe luzeko zorrak.....	381.014	377.429	371.323	363.545
Kreditu erakundeekiko zorrak (A.4).....	371.875	365.500	358.750	351.750
Zeharkakoak.....	9.139	11.929	12.573	11.795
<b>PASIBO ARRUNTA</b>	<b>25.320</b>	<b>20.063</b>	<b>18.706</b>	<b>17.140</b>
Epe laburreko zorrak.....	17.241	12.543	13.446	12.621
Kreditu erakundeekiko zorrak (A.4).....	12.061	12.179	12.397	12.462
Bestel. finantza pasibo batzuk.....	5.180	364	1.049	159
Merkataritz. hartzek. eta ordain. beste kontu batzuk.....	8.079	7.520	5.260	4.519
Hornitzaileak.....	4.322	4.290	2.965	2.927
Langileria (ordaintzeko dauden ordainsariak).....	6	-	-	-
Bestelako zorrak Administrazio Publikoekin.....	1.004	1.645	1.282	590
Bezeroei aurrerakinak.....	2.747	1.585	1.013	1.002
<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA</b>	<b>493.279</b>	<b>462.336</b>	<b>438.561</b>	<b>412.978</b>



## 2008, 2009, 2010 eta 2011ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiei dagozkien Galera eta irabazien kontua

	Euroak milakotan			
ERAGIKETA JARRAITUAK	2008	2009	2010	2011
Negozio zifratik zenbateko garbia .....	22.794	13.148	12.976	10.247
Zerbitzu ematea .....	22.794	13.148	12.976	10.247
Izakinen kontsumoa eta bestelako kanpoko gastuak .....	(7.173)	(5.725)	(4.643)	(4.021)
Bestelako ustiapen sarrerak .....	1.549	1.132	1.012	1.013
Sarrera osagarriak eta kudeaketa arrunteko beste batzuk .....	1.057	594	758	584
Ekitaldiaren emaitzara txertatutako ustiaketako diru-laguntzak .....	492	538	254	429
Langile gastuak (5. kap.) .....	(4.951)	(5.644)	(4.851)	(4.389)
Soldatak, lansariak eta antzekoak .....	(3.866)	(4.550)	(3.826)	(3.433)
Gizarte zamak .....	(834)	(893)	(840)	(787)
Bestelako gizarte gastuak .....	(251)	(201)	(185)	(169)
Bestelako ustiapen gastuak .....	(11.454)	(10.735)	(8.870)	(8.754)
Kanpoko zerbitzuak .....	(10.792)	(10.032)	(8.183)	(8.057)
Tributuak .....	(625)	(642)	(669)	(661)
Eragiketengatik zuzkiduren galerak, narriadura eta bariazioa .....	(37)	(61)	(18)	(36)
Ibilgetuaren amortizazioa (A.2) .....	(18.934)	(18.813)	(18.771)	(18.826)
Ibilgetu ez finantzarioaren diru-lag. egozketa eta beste .....	10	9	9	8
<b>USTIAKETAREN EMAITZA .....</b>	<b>(18.159)</b>	<b>(26.628)</b>	<b>(23.138)</b>	<b>(24.722)</b>
Finantza sarrerak .....	1.245	278	142	148
Ibilgetuan txertatutako finantza gastuak .....	140	-	-	-
Finantza gastuak .....	(17.371)	(17.122)	(16.784)	(16.457)
Baliabide finantzarioak besterenganatzeagatik emaitza .....	243	165	136	13
<b>EMAITZA FINANTZARIOA .....</b>	<b>(15.743)</b>	<b>(16.679)</b>	<b>(16.506)</b>	<b>(16.296)</b>
<b>EMAITZA ZERGA AURRETIK .....</b>	<b>(33.902)</b>	<b>(43.307)</b>	<b>(39.644)</b>	<b>(41.018)</b>
Mozkinen gaineko zerga .....	-	-	-	-
<b>EKITALDIAREN EMAITZA .....</b>	<b>(33.902)</b>	<b>(43.307)</b>	<b>(39.644)</b>	<b>(41.018)</b>



## 2008, 2009, 2010 eta 2011ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiei dagokien ondare garbian aldaketen egoera

### A) AITORTUTAKO SARREREN ETA GASTUEN EGOERA

	Euroak milakotan
<b>GALERA ETA IRABAZIEN KONTUAREN EMAITZA, 2008</b>	<b>(33.902)</b>
Ondare garbian zuzenean jasotako sarrera eta gastuak guztira .....	
Eskudiruzko fluxuen estaldurengatik .....	(8.955)
	(8.955)
Galera eta irabazien konturako transferentziak guztira.....	
Eskudiruzko fluxuen estaldurengatik .....	(711)
Diru-laguntzak, dohaintzak eta jasotako legatuak .....	(10)
	(721)
<b>AITORTUTAKO SARRERAK ETA GASTUAK GUZTIRA, 2008</b>	<b>(43.578)</b>
<b>GALERA ETA IRABAZIEN KONTUAREN EMAITZA, 2009</b>	<b>(43.307)</b>
Ondare garbian zuzenean jasotako sarrera eta gastuak guztira .....	
Eskudiruzko fluxuen estaldurengatik .....	(6.868)
	(6.868)
Galera eta irabazien konturako transferentziak guztira.....	
Eskudiruzko fluxuen estaldurengatik .....	4.078
Diru-laguntzak, dohaintzak eta jasotako legatuak .....	(9)
	4.069
<b>AITORTUTAKO SARRERAK ETA GASTUAK GUZTIRA, 2009</b>	<b>(46.106)</b>
<b>GALERA ETA IRABAZIEN KONTUAREN EMAITZA, 2010</b>	<b>(39.644)</b>
Ondare garbian zuzenean jasotako sarrera eta gastuak guztira .....	
Eskudiruzko fluxuen estaldurengatik .....	(6.266)
	(6.266)
Galera eta irabazien konturako transferentziak guztira.....	
Eskudiruzko fluxuen estaldurengatik .....	5.622
Diru-laguntzak, dohaintzak eta jasotako legatuak .....	(9)
	5.613
<b>AITORTUTAKO SARRERAK ETA GASTUAK GUZTIRA, 2010</b>	<b>(40.297)</b>
<b>GALERA ETA IRABAZIEN KONTUAREN EMAITZA, 2011</b>	<b>(41.018)</b>
Ondare garbian zuzenean jasotako sarrera eta gastuak guztira .....	-
Eskudiruzko fluxuen estaldurengatik .....	(3.991)
	(3.991)
Galera eta irabazien konturako transferentziak guztira.....	
Eskudiruzko fluxuen estaldurengatik .....	4.769
Diru-laguntzak, dohaintzak eta jasotako legatuak .....	(8)
	4.761
<b>AITORTUTAKO SARRERAK ETA GASTUAK GUZTIRA, 2011</b>	<b>(40.248)</b>

**B) ONDARE GARBIAK ALDAKETA EGOERA GUZTIRA**

	Euroak milakotan						
	Kapitala	Erreserbak	Aurr. ekit. emait.neg.	Ekitald. emaitza	Balio aldaketag. doiketak eta dohan.	Diru-lag. legatuak	Guztira
<b>2008-KO URTE HAS. DOITUT. SALDOA</b>	<b>145.672</b>	<b>6</b>	<b>(177)</b>	<b>(39.960)</b>	<b>527</b>	<b>74</b>	<b>106.142</b>
Aitortutako sarrerak eta gastuak guzt.....	-	-	-	(33.902)	(9.666)	(10)	(43.578)
Kapitalezko murrizketak .....	-	-	-	-	-	-	-
Kapitalaren igoerak.....	24.040	-	-	-	-	-	24.040
Emaizaren banaketa .....	-	-	(39.960)	39.960	-	-	-
<b>2008-KO URTEKO AZKEN SALDOA</b>	<b>169.712</b>	<b>6</b>	<b>(40.137)</b>	<b>(33.902)</b>	<b>(9.139)</b>	<b>64</b>	<b>86.604</b>
Aitortutako sarrerak eta gastuak guzt.....	-	-	-	(43.307)	(2.790)	(9)	(46.106)
Kapitalezko murrizketak .....	(72.234)	-	72.234	-	-	-	-
Kapitalaren igoerak.....	24.040	-	-	-	-	-	24.040
Emaizaren banaketa .....	-	-	(33.902)	33.902	-	-	-
<b>2009-KO URTEKO AZKEN SALDOA</b>	<b>121.518</b>	<b>6</b>	<b>(1.805)</b>	<b>(43.307)</b>	<b>(11.929)</b>	<b>55</b>	<b>64.538</b>
Aitortutako sarrerak eta gastuak guzt.....	-	-	-	(39.644)	(644)	(9)	(40.297)
Kapitalezko murrizketak .....	-	-	-	-	-	-	-
Kapitalaren igoerak.....	24.040	-	-	-	-	-	24.040
Emaizaren banaketa .....	-	-	(43.307)	43.307	-	-	-
<b>2010-EKO URTEKO AZKEN SALDOA</b>	<b>145.558</b>	<b>6</b>	<b>(45.112)</b>	<b>(39.644)</b>	<b>(12.573)</b>	<b>46</b>	<b>48.281</b>
Aitortutako sarrerak eta gastuak guzt.....	-	-	-	(41.018)	778	(8)	(40.248)
Kapitalezko murrizketak .....	(80.865)	-	80.865	-	-	-	-
Kapitalaren igoerak.....	24.040	-	-	-	-	-	24.040
Emaizaren banaketa .....	-	-	(39.644)	39.644	-	-	-
<b>2011-KO URTEKO AZKEN SALDOA</b>	<b>88.733</b>	<b>6</b>	<b>(3.891)</b>	<b>(41.018)</b>	<b>(11.795)</b>	<b>38</b>	<b>32.073</b>



## 2008, 2009, 2010 eta 2011ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiei dagokien Eskudiruzko fluxuen egoerak

	Euroak milakotan			
	2008	2009	2010	2011
<b>USTIAKETA JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK</b>				
Ekitaldiaren emaitza zerga aurretik .....	(33.902)	(43.307)	(39.644)	(41.018)
Emaitzaren doiketak .....	34.826	35.563	35.285	35.140
Kapital arruntean aldaketak .....	(2.767)	5.855	(2.188)	594
Ustiaketa jardueren eskudiruzko beste fluxu batzuk .....	(16.170)	(17.030)	(16.853)	(16.525)
<b>USTIAKETA JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK</b>	<b>(18.013)</b>	<b>(18.919)</b>	<b>(23.400)</b>	<b>(21.809)</b>
<b>INBERTSIO-JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK</b>				
Inbertsioek erag. ordainketak.....	(24.677)	(4.214)	(259)	(1.053)
Inbertsio ezagatiko kobrantzak .....	22.508	5.877	8.797	4.674
<b>INBERTSIO-JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK</b>	<b>(2.169)</b>	<b>1.663</b>	<b>8.538</b>	<b>3.621</b>
<b>FINANTZAKETA JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK</b>				
Ondareko baliabideengatik kobrantza eta ordainketak.....	24.040	24.040	24.040	24.040
Finantza pasiboko baliabideen kobrantza eta ordainketak....	(5.875)	(6.126)	(6.375)	(6.750)
<b>FINANTZAKETA JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK</b>	<b>18.165</b>	<b>17.914</b>	<b>17.655</b>	<b>17.290</b>
<b>ESKUDIRU EDO BALIOKIDEEN IGOERA / MURRIZKETA GARBIA</b>	<b>(2.017)</b>	<b>658</b>	<b>2.803</b>	<b>(898)</b>
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi amaieran .....	7.452	5.435	6.093	8.896
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi amaieran .....	5.435	6.093	8.896	7.998



## ALEGAZIOAK

### A.- ATARIKOA

Beste ezeri heldu aurretik, egokia da adieraztea, zor den errespetuarekin, igorri zaigun Alegazioetarako txostenean (“**Txostena**”) jasotako gogoetek, orokorrean, akats larria egiten dutela Bilbao Exhibition Centre, SA (“**BEC**”) enpresari zentzu hertsian Herri Administrazio izaera duten entitateen kontratazio publikoari buruzko legeriako xedapenak aplikatzean, izan ere, BECk ez du izaera hori.

Hori dela eta, nahitaezkoa da argitzea sektore publikoko erakundeen barruan, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legeak (“SPKL”, denbora arrazoiak direla-eta fiskalizaturiko zati bati aplikagarria), egun indarrean dagoen Testu Bateginak bezala, hiru entitate mota bereizten zituela, Legean jasotako xedapenekiko mendetasun maila desberdinarekin: (i) Herri Administrazioak; (ii) Herri Administrazio izaera eduki gabe esleitzeko boterea duten sektore publikoko entitateak; eta, azkenik, (iii) Herri Administrazio izaera eta esleitzeko botere gabeko sektore publikoko erakundeak.

SPKLren sailkapenaren arabera, BEC ez da Herri Administrazio bat, baina bai jotzen da, Lege horren arabera, sektore publikoko entitatetzat, esleitzeko boterea duena (SPKLren 3.3 artikulua). BECk, era berean, ez zuen Herri Administrazio izaera ekainaren 16ko 2/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Testu Bategina (“**HAKLTB**”, aldi honi aplikagarria) onartu zuena.

Aurrekoari gehitu behar zaio Txostenak bereizi barik aplikatzen diela azterturiko txostenei HAKLTB eta SPKL, baina nabarmena da bata eta bestea desberdinak direla beren arautzeari dagokionez. Ondorioz, azterketa zorrotza egiteko, nahitaezkoa da zehaztasunez identifikatzea eta aplikatzea txosten bakoitzari aplikagarri litzaiokeen legeria.<sup>1</sup>

---

<sup>1</sup> Txostenaren 1. Eranskinean BECi ezargarria zaion legeria Herri Administrazio ez den botere esleitzaileri dagokiona dela esan da; horren aurrean HKEEk fiskalizazio lanean aintzat izan du SPKLren 174. artikulua; honek, zehazten dituen hainbat salbuespen jakinekin, III. Liburu, I. Izenburu, I. Kapituluko araubide “administratibora” meneratzen ditu Herri Administrazio ez diren botere esleitzailerek esleitzen dituzten erregulazio harmonizatuko kontratuak; 175. artikulua kontratu hauek guztiak, erregulazio harmonizatuari lotu gabeko gainerako kontratuak ez bezala, kasu guztietan, publizitate, lehia, gardentasun, isilekotasun, berdintasun eta ez diskriminazio printzipioetara meneratzen ditu, horrek berekin dituen ondorioekin. Honek eta Atariko Tituluaren, I. Liburuaren eta III. Liburuko II. Tituluaren aplikazio zuzenak eta bestelako agindu solteen aplikazioak osatzen dute BEC bezala Herri Administrazio izaera ez duten eta botere esleitzaileri diren erakundeek ezargarria zaien araubide juridikoa.



Bestetik, beste akats material independente bat adierazi beharra dago, Txostenaren 36. orrialdean aurkitua, baieztatzen baita Administrazio Kontseiluko kideek 2011n zehar adierazi egiten den ordainsaria jaso dutela. Akatsa da BECren Administrazio Kontseiluko kideek, kontseilari delegatuak salbu, ez dutela inolako ordainsaririk jasotzen euren kargua betetzeagatik.

Aurreko akatsen berri emanda, eta zor den errespetuaz esanda orokorrean euretatik eratorritako edo euren ondoriozko kontuak baliogabetuta geratu behar dutela, jarraian zehazki aztertzen dira igorri zaigun Txostenean aurkituriko beste zenbait akats eta funsgabetasun.

## B.- ALEGAZIOAK

1. *Lanpostu bat amortizatu izanaren ondorioz abiarazitako baja espediente batean BECek LEren 52 c) artikuluekin loturik, 6/2006 FAren 9. artikulua zehazten duen mugaren gainera gehiegi 70.131 euroren kalte-ordaina ordaindu zuen; gehiegizko kopuru horri ez zaio, baina, NUIZaren konturako atxikipenik egin, zerga horretatik guztiz salbuetsia dagoela irizteagatik.*

Hain zuzen, BECk prima bakarrerako aldi baterako errenten aseguru baten kontratazio bidez instrumentatu zuen 2009an lanpostuaren amortizazioagatik baja hartu zuen langile bati zor zitzaizkion kalte-ordainetako bat.

Ordaindutako prima bakarraren zenbatekoak (283.916,34 euro) 70.131,09 euroan gainditzen zuen Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergatik (“PFEZ”) libre dagoen kalte-ordaina, PFEZen abenduaren 29ko 6/2006 Foru Arauaren 9.4 artikuluan aurreikusitakoa aplikatuta 213.785,25 eurokoa zena.

Adierazitako gehiegiko kopurua, 70.131,09 euro, lanaren gauzazko etekin gisa hartu behar zen kontuan. Halere, errenta horren sortze aldia bost urtetik gorakoa zenez eta modu ez errepikatuan eskuratua, “ezohiko errenta” gisa hartu ahal izan zen kontuan, %50eko ehunekoan sartzeko modukoa.

Horrek esan nahi du langilearen PFEZen zergapeko zenbatekoak, hain zuzen, 35.065,54 euro (70.131,09 euro x %50) izan behar zuela.

BECK ordaindutako lanaren errenten gainean atxikitzeke betebeharra PFEZen sartu beharreko errentei baino ez dagokie, hala xedatzen baitu PFEZen Araudia onartzen duen 207/2007 Foru Dekretuaren 108. artikulua.

Ondorioz, prima bakarra ordaintzean BECrik zegokion atxikitzeke betebeharra PFEZetik libre ez zegoen prima bakarraren zatiaren gainekoa zen, hau da, 35.065,54 euroren gainekoa.

Alabaina, ez dagokio atxikitu beharreko errenten hartzailearen zerga pertsonalaren konturako atxikipen edo diru-sarrerei dagokien kuota ordaintzaileari eskatzea, hartzaile horiek eurek likidatu baitzituzten zegozkien errentaren gaineko zergak eta zegokien zergazko kuota ordaindu baitzuten. Hala onartu du Auzitegi Gorenak jurisprudentzia





bateratuan (AGEk, 1999ko azaroaren 13an, 2007ko otsailaren 27an eta 2008ko martxoaren 5ean).

Kontrako tesia onartuko balitz (atxikitu beharreko errenten ordaintzaileei atxikipen horiei dagozkien kuota exijitzeko bidezotasuna), bidegabeki aberasten ariko litzateke zerga-administrazioa, eta hori debekatuta dago errenten hartzaileek beren zergak likidatu dituztenean.

2. *Aztertu ditugun sei espedientetan (3, 4, 5, 6, 11 eta 15 zk.), epe horretan 14,4 milioi euroren exekuzioa izan dutenak, lizitazio iragarkia EHAAn soilik eman zen argitara; ordea, kopurua aintzat hartuta DOUEn eta BOEn argitaratu behar zatekeen, APKLTBren 78.1 artikuluaekin loturik 2.1 artikulua urratuz (ikus A.12).*

Gaitzetsi egiten da unean uneko lizitazio iragarkiak ez direla Estatuko Aldizkari Ofizialean (“BOE”) eta Europako Batasuneko Aldizkari Ofizialean (“DOUE”) argitaratu. EKEEren arabera, iragarki horiek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (“EHAA”) baino ez ziren argitaratu.

Zerrendaturiko lizitazioen iragarkiak EHAAn ez ezik, Txostenak dioen moduan, BECren kontratatzailearen profilean eta prentsan (El Correo eta Deia) ere argitaratu dira. Hedabide horietan egindako lizitazioen argitalpena nahikoa izan da aipatu lizitazioen hedapenik handiena eta lehiaketa bermatzeko, enpresen parte-hartze handiak eta enpresen jatorri geografiko anitzak erakusten duten bezala. Lehiaketetan, tokiko edo autonomia erkidegoko enpresek ez ezik, estatuko, Europako eta nazioarteko enpresek ere hartu dute parte.

Hortaz, salaturiko iragarki ez jartzeak lehiaketari kalte egin diolako zantzurik ez dago, beraz, garrantzirik gabeko huts formaltzat baino ezin da jo.

3. *Altzari eta osagarrien alokairu zerbitzua esleitzeko eta horiek garraiatu, kolokatu eta jasotzeko lehiaketa 2010eko apirilean egin zen (9 zk. espediente) eta esleipendunak uko egin zion esleipenari 2011ko martxoaren 21ean. BECek 2011ko apirilean (10 zk. espediente) kontratua berriz esleitu zuen eta zuzenean 2010ean egindako lehiaketan 2. tokian geratu zen lehiatzaileari eman zion. Esleipen honek, 2011n 132.117 euroren exekuzioa izan zuena, urratu egiten ditu publikotasun eta lehia printzipioak, SPKLren 1. artikulua agintzen duena (ikus A.12).*

Txostenak aipatzen duen kontratuaren helburua altzariak eta osagarriak alokatzea, garraiatzea, jartzea eta kentzea zen. Formalizaturiko kontratuaren esleipendunak hori egiteari uko egindakoan, BECk berriz esleitu zuen kontratua, hain zuzen, bigarren sailkaturiko lizitatzailerari. Txostenaren arabera, hori eginez SPKLren 1. artikulua jasotako publikitate eta lehia printzipioak urratu ziren.

Badirudi Txostenak ez dituela kontuan hartu BECren erabakiaren inguruko inguruabar bitxi eta ezohikoak, eta, jarraian ikusiko den bezala, justifikatu ez ezik, exijitu ere egiten



zutenak jada izapideturiko prozesuan bigarren sailkatuarengana jotzea, esleipendunari kontratua betetzeko gainera etorritako ezintasunaren aurrean.

Izan ere, 2011ko martxoaren 21ean (Txostena oker dabil 2010 urtean izan zela iradokitzean), lehiaketaren esleipenduna, harekin kontratua formalizatuta zegoela, kontraturiko zerbitzua ematea (apenas zen hasia ematen) ezinezko egin zion kaudimen eza egoeran sartu zen. Horregatik, adostu zen akordioa baliogabetzea eta zerbitzua bigarren eskaintzarik onena aurkeztu zuen enpresari eskatzea.

Izan ere, ustekabeko gertakari hori gertatu zen aldi berean BECk bere gain hartua baitzuen bere Esparruan hurrengo gertakizunak egiteko konpromisoa, eta horren osagai nagusi eta ezinbestekoa altzariak eta osagarriak alokatu, garraiatu, jarri eta kentzeko zerbitzua zen:

- (i) 06/04/2011 - Euskaliten bilerak.
- (ii) 16/05/2011 - Prestakuntza-zikloetan sartzeko azterketak.
- (iii) 14/05/2011 - HABEren azterketak.
- (iv) 08/06/2011 - Prestakuntza-zikloen azterketak.
- (v) 18/06/2011 - Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren lan-eskaintza publikoa.

Kontratastak premia biziko egoeran jarri zuenez BEC, aipatu gertakizunak egiteko zorian zeudela, haien neurria eta izaera kontuan hartuta (guztira sei, jendetsuak, hiru hilabete bano gutxiagoan), zerbitzu hauek lehenbailehen kontratatu behar ziren. Helburu hori, berme guztiekin jada izapideturiko prozeduran bigarren sailkatutako eskaintzara jota bano ezin zen lortu, eta, hain zuzen, aurkeztu zenetik iragandako denbora gutxiagatik erabat indarrean zegoen.

Jarduera horrek ez du sortu publizitate eta lehia printzipioen inolako urraketarik. SPKLk bere araudian kontuan hartzen duen kasua da kontratazio organoak hurrengo lizitatzailarengana jo ahal duenean, kontratua formalizatu aurretik, baina ez dio erantzunik ematen egoera mota honi, alegia, kontratua izenpetua dagoenean, beraz, inguruabarrei erreparatuta konpondu behar dira, jokoan dauden interes guztiak aintzat hartuta eta hasierako lizitazioa abiarazi zenetik igarotako denbora baloratuta.

Ondorioz, azaldutako inguruabarrek (oso bereziki egozgarria ez zitzaion arrazoi bat zela kausa BECren behar bizia, berme guztiekin izapideturiko prozedura arrunt batean sailkatutako bigarren eskaintzak indarrean jarraitzen zuela gehituta) argi uzten dute izandako jokabidea eskura zeuden aukera guztien arteko onena izan zela, eta SPKL zuzentzen duten printzipioei erabat egokitzen zitzaiela.

Bestetik, BECk emandako konponbideak babes zehatza zuen SPKLren 154 e) artikuluan, izan ere, artikulua horrek baimena ematen du zuzenean esleitzeko kontratu bat ustekabeko gertakarietatik eratorritako premia bizia dagoenean. Kontratua kontratastari egozgarriak zitzaizkion gainera etorritako arrazoiak zirela medio baliogabetuta, BECk ez zuen zerbitzua urgentziaz kontratatu beste erremediorik.

Azaldutakoaren arabera, Txostenak jasotako gaitzespena bertan behera geratu behar da.



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

4. *2010eko irailaren 20ko Administrazio Kontseiluaren erabaki bitartez, BECek Club Deportivo Basket Bilbao Berri SAD sozietateari bi maileria teleskopiko aulki eta guzti erosi zizkion, 773.125 euroren zenbatekoan (BEZ sartu gabe); sozietate honek prezio berean erosi zituen Bizkaia Arena pabiloian 2009-2010 denboraldian jokatu ziren saskibaloiko partidetan erabiltzeko. Erosketa hau zuzenean egin da, publikotasun eta lehia printzipioak urratuz..*

Txostenaren arabera, publizitate eta lehia printzipioak urratzen ditu Basket Bilbao Berri SAD Kirol Klubaren bi harmaila teleskopikoren erosketak, 773.125 euroan, elkarte horrek Bizkaia Arena pabiloian 2009-2010 denboraldian jokaturiko saskibalo partidetan erabili zituen.

Funtsezkoa da kontuan hartzea horniduraren izaera (bereziki bitxia da produktua, BECren neurrira diseinaturiko eta egindako altzari sorta) eta tarteko inguruabarrak (harmaila bazegoen muntatuta, ezarrita eta erabiltzeko egoera ezin hobean).

Osagai biek ahalbidetzen zuten ondorioztatzea, argi eta garbi, Klubarena zela merkatuak BECri eskaini ahal zion eskaintzarik onena, bai ekonomikoki, bai giza baliabideei eta materialei zegokienez (jada ezarritako harmailak desmuntatzea saihestuko zen, berriz garraiatzea eta muntatzea, etab.). Horregatik ez zen sustatu lizitazio publikoa: erosi beharreko altzarien bitxitasun bereziak ahalbidetzen zuen aurreikustea ikuspuntu guztietatik Klubaren eskaintza zela onena.

5. *BECek 2008-2011 aldian hainbat gastu egin ditu, guztira 2,5 milioi euroren zenbatekoan, erosketa txiki modura izapidetu dituenak; ordea, zenbatekoa aintzat hartuta prozedura ireki bitartez edo lehia bermatuko zuen prozedura baliatuta kontratatu beharko zituzkeen; horrek guztiak SPKLren 1. artikulua eta APKLTBren 6. XGak bereizitako publikotasun eta lehia printzipioak urratzen ditu (ikus A.13).*

Txostenean adierazten da 13. Eranskinean identifikatzen diren prozedurek ez zutela ziurtatu SPKL eta HAKLTBk jasotako lehia, kontratazio txiki gisa esleitzearen ondorioz.

Kontratazio hauek hasieran ez eskaintzeko arrazoia izan zen hasiera batean ez zegoela beren behar eta neurriaren inguruko inolako erreferentziarik. Aurreko ekitaldietan irabazitako eskarmentua kontuan hartuta, prestazioak errepikatu eta elkarren segidako egokitzapenak eginda, ahal izan ziren beharrezko konprezioarekin zehaztu eta definitu (bai beren balorazio ekonomikoari, bai baldintza teknikoei zegokienez) gero prozedura ireki bat deitu ahal izateko, Txostenak berak dioen moduan.

6. *Sozietatea, 2011ko abenduaren 31n, KSLren 363. artikulua jasotako egoeran zegoen, ondare garbia kapital sozialaren erdia baino kopuru txikiagora murriztu baitzen. 2012ko apirilaren 10eko Akziodunen Batzar Nagusiak 24 milioi euroren kapital zabalkuntza eta 44,4 milioi euroren kapital murrizketa onartu du horretarako zegoen legezko epean; horren ondorioz, Sozietatea*



*2012an 2011ko abenduaren 31ko ondare egoerara bueltatu da, indarreko legeriari jarraiki.*

*Bestalde, jarduerari eutsi ahal izatea akziodunen finantza- eta ondare-sostenguaren baitakoa izango da, eragiketei eusteko eta hartutako konpromisoari aurre egin ahal izateko.*

Auzitegiak bere iritzia emanda, alegia, 2011ko Urteko Kontuek ondarearen, finantza egoeraren, eragiketen emaitzaren eta eskudiru fluxuen isla fidela adierazten dutela, araudi aplikagarriarekin eta kontabilitateko printzipio eta irizpideekin bat etorruta, informazio bat eranstean da esanbidez adierazita horrek ez diola eragiten adierazitako iritzia.

Bestetik, akziodunen finantza eta ondare laguntzarekiko konpromisoari dagokionez, berau “Lankidetzaz-hitzarmena Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren artean Ansioko (Barakaldo) Erakusketa Azoka berriaren Proiektuaren garapenerako” akordioan bermatuta eta barneratuta dago, 2002ko azaroaren 29an izenpetua.

7. *BECen kontrataziorako barne aginpideek, erregulazio harmonizatuari lotu gabeko kontratuak arautzen dituztenak, hiru eskaintza eskatzeko prozedura ezartzen dute 200.000 eurotik gorako eta 1 milioi eurotik beherako obra kontratuetan eta 60.000 eurotik gorako eta 100.000 eurotik beherako gainerako kontratuetan. 200.000 eurotik gorako lanak eta 60.000 eurotik gorako gainerako kontratuak publikotasuna duen prozedura ireki edo negoziatu bidez esleitu behar dira, SPKLn kontratu hauek dituzten ezaugarriekin. Berebat, kontrataziorako barne aginpideek 50.000 eurotik beherako kontratuetan eskaintza bakarra egin behar izatea arautzen dute eta honenbestez, ez dira SPKLren 175.a artikuluan eskatutako printzipioak bermatzen..*

Txostenak dio arau harmonizatupean ez dauden kontratuatarako BECren Barne Kontratazio Jarraibideetan aurreikusitako prozedurak ez datozela bat SPKLrekin, eta ez direla bermatzen arau horren 175. artikuluan jasotako printzipioak.

Gogorarazi beharra dago SPKLk hainbat exigentzia maila bereizten dituela bere aplikazio esparru subjektiboan. Sektore publikoko entitateen baitan, SPKLk hiru kategoria bereizten ditu, Legean jasotako xedapenekiko mendetasun maila desberdinarekin: (i) Herri Administrazioak; (ii) Herri Administrazio izaera eduki gabe esleitzeko boterea duten sektore publikoko entitateak; eta, azkenik, (iii) Herri Administrazio izaera eta esleitzeko botere gabeko sektore publikoko erakundeak.

SPKLn aurreikusitako sailkapenaren arabera, BEC Herri Administrazio izaera gabeko esleitzeko boterea duen sektore publikoko entitatea da.

SPKLren 175. artikuluan, Herri Administrazio izaera ez baina esleitzeko boterea duten entitateek arau harmonizatupean ez dauden kontratuen esleipenean aplikatu beharreko prozedura ezartzen da, eta honela dio:

“Arau harmonizatupean ez dauden kontratuen esleipenean, honako xedapenak aplikatuko dira:

- a. Esleipena, edozein kasutan, publizitate, lehia, gardentasun, isiltasun, berdintasun eta diskriminazio ezaren printzipioen mende egongo da.
- b. Atal honek aipatzen dituen entitateetako organo eskudunek jarraibide batzuk onartuko dituzte, haien barne esparruan nahitaez bete beharrekoak, kontratazio prozedurak arautuko dituztenak aurreko hizkian aipatu printzipioen eraginkortasuna bermatuta geratzeko moduan, eta kontratua ekonomikoki eskaintzarik onuragarriena aurkezten duenari esleituta. Jarraibide hauek, arautzen dituzten kontratuen esleipen prozeduretan parte hartzeko interesa duten guztien eskura jarri behar dira, hala nola entitatearen kontratugilearen profilean argitaratu.

Estatuko sektore publikoaren esparruan, jarraibideen onarpenak Estatuko Abokatutzaren aurretiko txostena beharko du.

- c. Publizitate printzipiotik eratorritako exijentziak betetzat joko dira 50.000 euro baino gehiagoko kontratuen lizitazioari buruzko informazioa entitatearen kontratugilearen profilean argitaratzen denean, kontratazioko barne jarraibideek beste hedapen modu batzuk, bestelakoak edo gehigarriak, ezarri ahal izateari kalterik egin barik.”

Xedapen horren arabera, arau harmonizatupean ez dauden BECren kontratuak araubide honen mende daude:

- (i) Ez dira nahitaez aplikatzeko SPKLn Herri Administrazioentzat ezarritako lizitazio prozedurak, izan ere, legegilearen asmoa hori izan balitz, esanbidez adieraziko zuen arauan.
- (ii) Esleipen prozedurak ezartzeko orduan jarritako muga bakarra publizitate, lehia, gardentasun, isiltasun, berdintasun eta diskriminazio ezaren printzipioak betetzea da.
- (iii) Publizitatea, kontratugilearen profilean iragarki bat jarrita jotzen dena bermatutzat, 50.000 euro baino gehiagoko kontratuetarako baino ez da eskatzen. Beraz, kontrako zentzuan, zenbateko txikiagoko kontratuetan ez da iragarkirik jarri behar profilean.

Laburbilduta, BECk askatasuna dauka arau harmonizatupean ez dauden kontratuen esleipen prozedurak diseinatzeko orduan, betiere aipatu printzipioak errespetatuta.

Eta publizitate eta lehia printzipioei dagokienez, SPKLk ez du zehaztapen gehiagorik ezartzen beren irismenari buruz. Kontratazio Aholku Batzordeek, aholkularitza organoak diren heinean, doktrina ezarri dute horri dagokionez, honela laburbil daitekeena:

- (i) Kontratazioan publizitate eta lehia printzipioak bete behar izateko exijentziak ezin du ekarri, edonola ere, SPKLn ezarritako kontratazio prozedurak aplikatzeko betebeharra.



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

- (ii) Publizitate eta lehia printzipioak, malgutasunez eta eragiketa bakoitzaren izaerari zentzuz egokituta bete behar dira. Finean, esleipen bidegabeak ekiditean datza, eraginkortasun irizpide objektiboen kontrakoak baitira.
- (iii) Ez dago arau edo irizpide orokorrik kasu bakoitzean printzipio horien aplikazioa gauzatzeko formularen inguruan. Sozietateak berak erabaki beharreko kontua da, kasu bakoitzaren inguruabar zehatzei erreparatuta.

Hain zuzen zentzu horretan, Aragoiko Administrazio Kontratazioko Aholku Batzordeak zehaztu egin du, martxoaren 3ko 1/2008 Interpretazio Zirkularrean, Herri Administrazio ez diren sektore publikoko entitateek arau harmonizatupean ez dauden kontratazioetan bete beharreko “*printzipioen*” aplikazioa ez datorrela bat SPKLko “*aginduen*” aplikazioarekin. Ondorioz, onartzen diren KBJek esleipen prozeduretarako egoki jotzen den araubidea aurreikus dezakete, betiere SPKLren 175. artikulua jasotako printzipioak bermatuta.

Ondorioz, arau harmonizatupean ez dauden kontratuei dagokienez, SPKLk Herri Administrazio izaera gabeko esleitzeko boterea duten entitateen esku uzten du orokorrean adierazitako publizitate eta lehia helburu horiek lortzeko prozedura onenen eraketa. Ez daude behartuta Herri Administrazioentzat aurreikusitako prozedura berberak aplikatzera.

Aurrekoa esanda, nahikoa da BECren KBJetan aurreikusitako prozeduren azterketa laburra legezketasunari erabat lotzen zaizkiola ondorioztatzeko, publizitate eta lehia printzipioak betetzen direla bermatzen duten heinean. BECren KBJek hainbat esleipen prozedura arautzen dute, kontratuak, euren zenbatekoaren arabera sailkatuta, zein mailatan dauden kontuan hartuta:

- (i) maila: kalkulaturiko balioa 50.000 eurokoa edo txikiagoa duten kontratuak, edozein izanda ere kontratu mota.

Kontratu hauetarako, KBJek eskaintza bakarra eskatzeko aukera aurreikusten dute.

Nabarmena denez, kasu honetan kontratazio espediente arrunt bat izapidetzeak BECri eta izan litezkeen lizitatzailaiei ekarriko lizkiekeen gastu handiagoak eta gestioak ez lirarteke konpentsatuko, kontratuaren prezioaren huskeria dela eta. Asmoa, azken finean, kontratazioa arintzea da, horrek kontratazio publikoa zuzentzen duten printzipioen murrizketa inola ere ekarri gabe.

Hain zuzen, sistema hau SPKLren 122. artikuluan Herri Administrazioentzat araturikoaren berdin-berdina da (izapidetze prozedura sinplifikatua, eta esleidi dakioke “zuzenean edozein enpresariri”), zerbitzuen kontratuatarako zenbatekoa handitu egiten dela salbuetsita. Xedapen horren arabera, kontratu txikiak 50.000 eurotik beherakoak dira, obra kontratuak direnean, edo 18.000 eurotik beherakoak beste kontratu mota batzuk izanez gero. SPKLren arabera, kontratu bat bere zenbatekoaren arabera txiki gisa sailka daitekeenean, zuzenean esleidi daiteke.

Araubide sinplifikatu honen funtsa administrazio-jardueran izan beharreko efikazia eta efizientzia printzipioetan dago: esleipen prozedura arrunt bat izapidetzeak dakartzan kostu handiak, denborari eta giza baliabideei eta materialei dagokienez, ez dira justifikatzen kontratuaren zenbatekoa txikia denean, kasu hauetan gertatzen den bezala.





Ondorioz, batetik, BECren BKJetan arauturiko prozedura bat dator kontratu publikoen legeriarekin, eta bestetik, gainera, antzekotasun handiak ditu SPKLk Herri Administrazioentzat arauturikoarekin. Beraz, ezin da ondorioztatu zerbitzuen kontratueterako muga 18.000 eurotik 50.000 eurora igotzeak arau-hausterik dakarrenik, izan ere, muga horretaraino SPKLk askatasun osoa ematen du.

- (ii) 2. maila: kalkulaturiko balioa 50.001 euro eta 1.000.000 euro (ra) artean duten kontratuak, obra kontratuak izanez gero; edo (b) 100.000 eurokoa gainerako kontratuetan.

Kontratu hauetarako, KBJek prozedura negoziatua aurreikusten dute, gutxienez hiru eskaintza eskatzean datzana. Zehazki, KBJek zera diote: *“eskaintza, kontratua burutzeko gai diren hiru enpresari, gutxienez, eskatuko zaie”*.

BECK kontratuen konplexutasunari eta ezaugarriei erreparatuta erabakitzen du eskaintza kopurua, edonola ere KBJek galdaturiko gutxienekoa, hau da, hiru eskaintza, errespetatuta.

Azpimarra daiteke BECK SPKLko prozedurak jarraitzeko betebeharra ez duen arren, KBJek maila honetako kontratueterako (Txostenean zalantzan jartzen direnak, hain zuzen) aurreikusitako prozedura prozedura negoziatuaren antzekoa dela.

- (iii) 3. maila: kalkulaturiko balioa 2. Mailakoena baino handiagoa duten eta arau harmonizatupean ez dauden kontratuak. Prozedura aplikagarriak irekia, murriztua, negoziatua edo elkarriketa lehiakorra bidezkoa dira.

KBJetan aurreikusitako esleipen prozeduren erabateko legezkotasunaren inguruko zalantza oro argituta, erantsi behar da Txostenak, gure irizpide adeitsuaren arabera, honako akatsa egiten duela: *“200.000 euro baino gehiago eta milioi 1 euro baino gutxiagoko kontratuak, eta 60.000 euro baino gehiago eta 100.000 euro baino gutxiagoko gainerako kontratuak”* aipatzen ditu, eta adierazten du kasu horietan KBJek *“hiru eskaintza eskatzea”* aurreikusten dutela, eta horrek, bere iritziazen arabera, ez ditu errespetatzen legeriako printzipioak.

Akatsa da nahastu egiten direla maila bakoitzerako ezarritako esleipen prozedurak eta publizitate baldintzak, eta, gainera, pareko jartzen dira prozedura negoziatua (KBJetan 2. Mailarako ezarria) eta hiru eskaintzaren eskaria, sinplifikazio okerra dakarrena, ez baitu fideltasunez islatzen errealitatea.

BECren KBJek kontratu desberdinetarako exijitzen duten publizitateak zorrozki eta osorik betetzen du SPKL. Ikus dezagun:

- (i) Maila edozein izanda ere, kalkulaturiko balioak 50.000 euroak gainditzen dituenean (SPKLren 175. artikulua ezarritako muga), publizitatea galdatzen da.
- (ii) Eta, salbuespenez, baldintza honetatik libre dago 200.000 euro baino gutxiagoko obra kontratuak direnean eta 60.000 eurotik beherako gainerako kontratueterako (SPKLren 161.2 artikuluan Herri Administrazioentzat jasotako salbuespena).

Laburbilduta, KBJetan aurreikusitako publizitateak zorrozki betetzen du SPKL.



Komeni da zehaztea, era berean, 2. Mailarako aurreikusitako prozedura negoziatuari dagokionez, KBJek ez dutela aurreikusten “*hiru eskaintzaren eskaera*”, baizik eta hiru enpresarekiko gutxieneko gonbidapena, parte hartzeko interesa erakutsi dutenen artean, SPKLren 162. artikuluan prozedura hau erabiltzen dutenean Herri Administrazioentzat ezarritako gauza bera dena.

Aurreko guztia kontuan hartuta, ez dago zalantzarik berrikusitako txostenetan aplikaturiko prozedurek SPKLko printzipioak errespetatzen dituztela eta haien berme nahikoa dakartela. Ez da zuzena baieztatzea horretarako SPKLk Herri Administrazioentzat ezarritako prozeduretara zehatz-mehatz jo behar dela.

BECren kontratu jarduerak erabat errespetatzen du legezkotasuna: kontratazioen publizitatea, lizitatuzaileen arteko lehia eta esleipendunen hautaketan objektibotasuna bermatzen duten prozedurak aplikatzen dira. Txostenak puntu honetan egindako kritika, beraz, bertan behera geratu behar da.

8. *Aztertu diren 16 kontratazio espedienteetarik 11tan (3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 11, 13, 14 eta 15 zk.), aztertutako aldian 16,4 milioi euroren egikaritza izan dutenak, Pleguetan ezarritako balorazio irizpideak modu generikoan definituak daude eta ez dituzte argi erakusten puntuatu asmo ziren helburuak. Txostenean “modu orokorrean definitutzat” jotako irizpideen identifikazio ezak eragotzi egiten dio BECri kritika horri zorrotzasunez erantzun ahal izatea, gaitzespen hori zein irizpide zehatzei buruzkoa den ez baitakigu.*

Kritika orokorra eta zehaztugabea bada ere, nabarmen daiteke jurisprudentziak behin eta berriro adierazi duela onargarria dela baldintza-orrietan esanbidez jaso gabeko irizpideak eta neurketak baloratzea, betiere baldintza-orri horietatik ondorioztatu edo atera ahal izanez gero, idazki honetako 9. atalean nabarmentzen den bezala. Alferrrikako errepikapenak ekiditeko, 9. atalera joko dugu osorik.

9. *Aztertu diren 16 kontratazio espedienteetarik 11tan (3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 11, 13, 14 eta 15 zk.), aztertutako aldian 16,4 milioi euroren egikaritza izan dutenak, Pleguetan ezarritako balorazio irizpideak modu generikoan definituak daude eta ez dituzte argi erakusten puntuatu asmo ziren helburuak.*

HKEEK adierazten du txosten jakin batzuetan proposamenen balorazio txostena ez legokeela behar bezala arrazoituta, eta puntuen esleipen hutsera mugatuko litzatekeela.

Baieztapen hori ez dator bat errealitatearekin: txosten horietako bakoitzean, aurkezturiko eskaintza desberdinak, arrazoituta eta oinarrituta, puntuatzen dituzten proposamenen balorazio txostenak daude.

Kontratazio publikoa arautzen duten printzipioak zorrozki bete daitezten bermatzeko, BECren ohiko jardunbidea da -SPKLn esanbidez aurreikusita dagoen bezala- esleitu beharreko kontratuaren erabiltzaile nagusia izango den Sailaren arduradunen esku uztea proposamenen azterketa eta balorazioa.





Hala, BECk deituriko lizitazioetan aurkezturiko eta onarturiko proposamen guztiak barne bileretan aztertzen eta baliozkotzen dira, haien erabiltzaile nagusia izango den Sailaren arduradunen laguntzarekin.

Uneoro, gardentasun, diskriminazio eza eta tratu berdintasunaren printzipioak bete dira, beraz, ezin da esan arau-hausterik izan denik.

*10. 2011ko ekitaldian 3,1 milioi euroren zenbatekoa ordaindu da 15/2010 Legeak agindutako epeen ostean. Ordainketen batez besteko epe haztatua 29 egunez luzatu da.*

HKEEren Txosteneko gaitzespenak (Merkataritza-eragiketetako Berankortasunaren aurkako abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldatzen duen uztailaren 5eko 15/2010 Legeak ezarritako ordainketa epeak aplikatzeko moduari buruz) funsgabeak dira: legezkotasun zorrotzaren aldetik ez ezik, baita justizia eta ekitate aldetik ere.

Izan ere, onartuko balitz ere uztailaren 5eko 15/2010 Legeak -Merkataritza-eragiketetako Berankortasunaren aurkako abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldatzekoa- administraziotarako ezarritako epeak aplikagarriak zaizkiola BECri (berehala ikusiko dugu, baina, ez dakizkiokeela aplika); hala ere, diogu, zentzugabea da, eta lekuz kanpo dago HKEEk BEC kritikatea ordainketen atal ñimiño batean (ozta-ozta, ikuskatutako aldi egindako ordainketen %5) atzerapen txiki batez jarduteagatik; hala da, zeren eta administrazioen ordainketa epeen inguruan (edo, zehatzago esanda, berandutze epeen inguruan) berriki argitaratutako datuek agerian uzten baitute egoera orokorra oso larria dela: administrazioek ez diete ordaintzen hornitzaileei, edo berandu ordaintzen diete.

Hala da, bai: 2011n hornitzaileei ordaindu dieten administrazioek (guztiak ez dute-eta ordaindu, inondik inora), batez beste, ia 100 egunean gainditu dute legezko epea; beraz, oso urrun daude BECren egoeratik, soilik 29 eguneko atzerapena leporatzen baitzaio. Administrazioei buruzko datu horrek dudazko ohore bat ematen dio Espainiari: Greziaren ostean, Europako Batasuneko kiderik berankorrena izatea, alegia. Gainontzeko administrazioek, edo ez dute ordaintzen, edo, *in extremis*, heldu behar izan diete Estatuak, egoerari aurre egin nahian, arrapaladan eta behartuta prestatu dituen ezohiko neurriei (besteak beste, ezohiko kreditu-lerroak, 4/2012 Errege Lege Dekretua, eta abar).

Berankortasun instituzionalaren egoera deitoragarri honetan, egokiagoa izango zatekeen -behintzat, justizia eta ekitate aldetik- BECren ordainketa politika laudatzea, kritikatu beharrean; izan ere, politika hori, hobetu litekeen arren, bikaina da gainontzekoenen aldean. Hala, BECk ordaindu egin die bere hornitzaileei, kasu gehien-gehienetan zorrotz errespetatuta uztailaren 5eko 15/2010 Legea.

Beste alde batetik, HKEEk BECren ordainketa politikari egiten dion kritikak huts bi ditu: (i) batetik, ahaztu egiten du abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldatzen duen eta merkataritza-eragiketetan berankortasuna borrokatzeko neurriak ezartzen dituen uztailaren 5eko 15/2010 Legeak herri administrazioentzat ezartzen dituen ordainketa epeak ez direla aplikagarriak ikuskatutako aldi osorako; eta, bestetik, BECk ez duela zertan egon administrazioentzako ordainketa epe berberen mende, esleitzeko boterea duen entitatea denez gero.



Ikuskatutako aldia 2008tik 2011ra doa; uztailaren 5eko 15/2010 Legea, oster, 2010eko uztailaren 7an sartu zen indarrean. Hortaz, honako honek argi dirudi: 2008 urtean, 2009 urtean eta 2010 urtearen zati batean egindako ordainketen inguruan, HKEEK ezin betearaz ditzakeela atzeraeraginez uztailaren 5eko 15/2010 Legetik eratorritako eskakizunak.

Aitzitik, uztailaren 5eko 15/2010 Legeak administrazioentzat ezartzen dituen ordainketa epeen aferak azalpen zehatzagoa behar du.

3/2004 Legeak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000ko ekainaren 29ko 2000/35/CE Zuzentarauan du jatorria. Bertan, neurriak ezartzen dira berankortasuna borrokatzeko merkataritza-eragiketetan, eta bere aplikazio eremuan kokatzen dira bai administrazioak, bai enpresak eta eragile ekonomikoak. Hala ere, ez ditu denak modu berean artatzen.

3/2004 Legearen lehendabiziko testuan, Administrazioaren osagaitzat hartzen ziren herri administrazioak, bai eta HAKLTBren 1. artikuluko 2. eta 3. paragrafoetan jasotako erakunde eta entitate guztiak ere: hau da, estatuko Administrazio Orokorra, autonomia erkidegoetako administrazioak, tokiko administrazioa osatzen duten entitateak, eta erakunde autonomoak zein nortasun juridiko propioa duten zuzenbide publikoko gainontzeko erakundeak, izan edozein herri administrazioen mendekoak edo haietakoren bati lotuak.

Definizio hark ez zituen administrazioentzat hartzen sektore publikoko beste entitate batzuk: hala nola, sozietate publikoak, HAKLTBren 2. artikuluan zein 6. xedapen gehigarrian jasoak. Hau da, 3/2004 Legearen arabera, sozietate publikoak eta bestelako entitate batzuk (esaterako, BEC, formalki ez baita sozietate publikoa) “enpresak” ziren hasieran, ez “Administrazioa”.

